Itsasoko tragediak euskal kanta zaharretan

URKIZU, Patri
UNEDeko irakaslea, euskaltzain urgazlea
eta Literatura Ikerketa batzordekidea

Fernando Artola Sagarzazu «Bordari» (1910-1983)
Euskalzale eta idazlearen omenetan

Zorigaiztoko egun batez Jaizkibelgo kostaldean
Gure anaia Iñaki hil zen Azabatzako partean,
Hura bezala asko dira galdu itsaso haserrean,
Horien denengatik lipar batez oroit gaitean.

(P.U.)

EUSKAL KANTA ZAHARREN biltze eta ikertze lana ez da oraingoxekoa. Jadanik XVIII. mende bukaeran hasiak ziren bilketa lanetan[1], eta batez ere XIX. mendean hor ditugu Joan Ignazio Iztueta, Agosti Chaho[2], Jean-Dominique Jullien Sallaberry eta batipat XX.mendean Resurrekzion Mª Azkue eta Aita Donostia milaka kanta biltzen eta doinuak jasotzen[3]. Ez zitzaion Jose Ariztimuño «Aitzol»i egindako lana buruturik zegoela iruditu eta kanpaina handi bat hasi zuen 1931ean *Collamus Carmina Nostra*, bil ditzagun gure bertso eta kantak lelopean.

---

[1] Patri Urkizu, *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*. Durangoko udala 1987.

[2] Patri Urkizu (ed.), *Agosti Chahoren Kantutegia*. Susa, Zarautz, 2006.

[3] Patri Urkizu et al., «Literatura de tradición oral», *Historia de la literatura vasca*. UNED, Madrid, 2000, 25-58.

Euskera. 2010, 55, 3. 1253-1326. Bilbo
ISSN 0210-1564

XXI. mendean aitzinatzen ari garelarik, eta batipat Antonio Zavalaren lan eskergaren ondoren, zerbait gelditzen ote biltzeko, arakatzeko eta ikertzeko? Nire ustez bai. Hor daukagu adibide gisara berrikitan Patziku Perurenak argitaratu berri duen liburu mardula Berdabioko kantaz[4], edota Jesus Antonio Cid-en hitzak[5] Zavalaren *Euskal Erromantzeak* liburuaz:

> […] Es indudable que las baladas vascas podían, o podrán en el futuro, publicarse de otra forma; **con otros títulos y otra ordenación**; añadiendo y suprimiendo temas o versiones; con estudios pormenorizados, narratológicos, históricos, etnográficos o lo que se desee en cada tema; con índices, gráficos y mapas, etc., etc.. Pero esto sería otra obra, no necesariamente mejor ni más útil, y no la de Zavala. Con *Euskal erromantzeak* disponemos de la compilación más copiosa de baladas del País Vasco nunca publicada. Varias decenas de excelentes textos, con sus melodías, se incorporan definitivamente al patrimonio cultural euskérico, y se ha evitado que colecciones casi míticas como las de Augustin Chaho y Aitzol siguieran permaneciendo ocultas o se perdieran para siempre. Los textos, editados con rigor, puntuados de forma coherente, y **ordenados por temas** facilitarán la lectura y ahorrarán la consulta simultánea y enojosa de libros, artículos de revista y otras fuentes, a quien desee conocer todos los testimonios conocidos de una balada concreta.

Hautatu dugun gaia dela eta, alegia, *Itsasoko tragediak euskal kanta zaharretan* azpimarratu behar dugu, gure ikerketan Azkue, Donostia eta Zavalaren lanak osatu eta zehaztu ahal izan ditugula. Eta gai hori ez dela itsasoko kanten multzo barnean espezialidade bat baizik, frantsesez «complaintes» deitzen direnak, beste hainbat kantu artean direla itsasuntzian lan ezberdinak egiten diren bitartean kantatzeko edo portuan[6], lehorreratu eta gero edari pizgarriei zurrutada ederrak eman ondoren.

---

[4] Patziku Perurena, *Goizuetan bada gizon bat. Trabukoren kantako misterioak*. Alberdania, Irun, 2010.

[5] Jesús Antonio Cid, «Romancero hispánico y balada vasca», *Antonio Zavalaren ohoretan*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbao, 2000, 100.

[6] AAVV, *Guide des chants de marins. Répertoire pour chanter à bord ou au port.* La Chasse-Marée. ArMenn.Duarnenez, 1997.

Arrantzaleen bizitza[7] darama titulu gisara Antonio Zavalak 1978an plazaratu liburuxkak. Itsasoak eta gizonak elkarrekin darabilkiten borroka latza zuen gaitzat, eta bertan zioenez bildutako bertsoak Gipuzkoakoak ziren soilik, Bizkaikoak eta Bidasoaz beste aldekoak hurrengo baterako uzten zituen. Beste aldi hura iritsi ez denez, beude ondorengo kanta hauek, batipat Iparraldeko koplariek onduak, itsasoko penen eta maluren, hala marinelen nola emigrazio bidaietan hondoratzen zirenen oroitgarri.

Zavalak bere liburuan bederatzi kanten artean honako lau tragedien bertsoak biltzen zituen: Bat, 1878ko apirilaren 20an Kantabriar itsasoan suertatu galerna gaizto baten ondorioz hirurehun lagun baino gehiago itota gertatu zirenekoa[8] Bi, 1879ko urtarrilaren zortzian Zumaiako ***San Jose*** itsasuntzia bixigutara joan eta beste galernazo baten ondorioz hamahiru ito zirenekoa, kostalde osoan pairatu zirelarik beste hamaika desgrazia[9].Hiru, 1906ko otsailaren hogeita seian Erandiotik Barakaldorako untzia pasatzerakoan bederatzi itoren berri ematen dituzten bertsoak[10]. Eta lau, 1908ko maiatzaren 24ean denboraleak sortu deskalabruen berri emanez Zipriano Lertxundik ondutako bertsoak[11], bertan jakitera ematen da 32 urterekin ito zela Ondarrutar bertsolaria zen Jose Manuel Imaz.

Ramos Azkaratek[12] badu ***San Jose*** mutrikuar txaluparen hondoratzeari buruzko bertso batzuek *El Correo del Nortek*-emanak (1901-II-3), eta Fermin Imaz[13] bertsolariak, ere moldatu zituzten tragedia hauei buruzko bertsoak.

---

[7] Antonio Zavala, *Arrantzaleen bizitza*. Auspoa 133, Tolosa 1978.

[8] Aip. Lib., 75-85.

[9] Aip. Lib., 87-96.

[10] Aip. Lib., 141-149.

[11] Aip. Lib., 151-157.

[12] Antonio Zavala, *Ramos Azkarate. Galtzaundi berriz ere*. (I, II), Auspoa 286,287. Zarautz 2004, T.II, 346.

[13] Antonio Zavala, *Fermin Imaz. Bertso guziak*. Auspoa 24, Tolosa 1963.

Jose Luis Ansorenak[14] ere aipatzen ditu Itsasoko tragediak eta kantak, eta besteen artean aipatzen 1902an gertatutakoa ***Nª Sra de Iciar*** izeneko untziari Mutrikuko sarreran, hondoratu egin baitzen hamar arratzale ito zirelarik. Tragedia hau Jose Manuel Imazek jaso zuen sei zortzikotan eta gero Agustin Zubikaraik[15].

Eta hainbat eta hainbat halako. 1912an, abuztuaren 13an gertatu tragediez Fermin Imazek eta Txirritak[16] moldatu zuten 16 bertso *Kantabriako itxas-gizonai oroipen bat*. Eta urte bereko urtarrilaren 8an adibidez elkartasunezko bando bat atera zuen Hondarribiko alkatea zen Meltxor Errazkinek *Constantinochiquiya*ren hondoratzea gertatu zela eta[17].

Dena den, nik hemen hogei kanta zahar aurkeztuko ditut soilik, Zavalak bildutakoak baino zaharragoak batzuek eta bai Bizkaia bai Iparraldekoak ahantzi gabe. Hona aurkitu ditudanak:

I.	DG	ALDAZTORREA
II.	1690- IV- 19 ing.	ZARRANTZAKO PENAK
III.	1820 ing.	HABANAKO KORBETAREN GALERA
IV.	1842-VI-9	LÉOPOLDINA-ROSAREN PULUNPA
V.	G. 1866 / T. 1881	MARI
VI.	1868- I -4	SAINT-PAULGO GIZAJALEAK
VII.	1873-XI-16	VILLE DU HAVRREN HONDORATZEA
VIII.	1874-IV-17	CARMENCITA-REN ERRESKATEA
IX.	1876	JONAS ETA ANA
X.	1876.ing.	BERTSO BERRIAK MIKAELA ZARRANAK
XI.	1878-IV-20	KANTABRIAKO KOSTA ONETAN
XII.	1879-I-8	SAN JOSEREN HONDORATZEA
XIII.	1901-II-3	SAN JOSE ITSASUNTZI MUTRIKUARRA
XIV.	1902	Nº SRA DE ITZIARKOAREN HONDORATZEA

[14] Jose Luis Ansorena, «La música y el mar», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Náuticos del País Vasco* 6, Untzi Museoa, Donostia 2009, 467-468.

[15] Agustin Zubikarai, *Ondarru, kantu, otoi, orru*. Caa Municipal de Cultura, Ondarru, 184, 36.

[16] Bertsolaria 1932, 50 zkia, 303.

[17] KM kulturunea, C-401 F-44.

XV.	1906-II-26	ERANDIOKO DESGRAZIA
XVI.	1908-V-24	KOSTERAREN DESKALABRUAK
XVII.	G.1912 / T.1932	KANTABRIAKO ITSASGIZONAI OROIPEN BAT
XVIII.	1915 -V-7	LUSITANIAKO DESKALABRUAK.
XIX.	1938 ing.	DOMECQ MARINELAREN HILTZIA
XX.	1982	ALARGUNAREN NEGARRA

Egileak

Kanta zaharren anonimotasunaz askotxo mintzatu izan ohi da, eta ildo horretatik Zavalarenak[18] dira hitzok: *Erri-literatura geienetan berdin gertatu da. Ahozkoak izan dira asiera batean eta paperera gero pasa. Batzuek lenago, besteak geroago eman zuten pauso ori.*

Ez da hori gertatzen beti ikusiko dugun bezala XIX. mendea aurrera doan neurrian, Sain-Paulgo gizajaleak kantan ikusiko dugunez. Eta jadanik Iztuetak 1847an argitaratu bere *Gipuzkoako Provintziaren condaira edo historia*..-n honako esaten baitigu: *orai zernai gauzaren berriak paper moldizkidatuetan zabaltzen diraden bezela.*

Eta hori kontutan hartuz, alegia XIX. mendean bertso-paperak ugaritzen doazela egile zinadurekin, Eibarko krimen bati buruz mintzo delarik honakoa esaten digu:

> *Garai batean antziñako denboretan, alegia, bertsolariak berak ikusita edo besteren bati entzunda ikasten zuan gertaeren berri, eta besterik gabe bertsoak jarri.*
>
> *Bañan gero, periodikuak ugaldu ziranean auetatik asi zan esatekoak ateratzen gai askotarako beintzat*[19].

Bildumako hogei kanten artean egile izen hauek topatu ditugu: Jean Etxeto «Katxo» hazpandarra, Joanes Etchepare donapaleutarra, eta Pierre

---

[18] Antonio Zavala, *Patxi Erauskin bertsolaria (1874-1945)*, II. Auspoa 131, Donostia, 1978, 15.

[19] Antonio Zavala, «Bertso-paperak». *Auspoaren auspoa I (Itzaldiak / conferencias)*. Auspoa 238, Oiartzun, 323-350.

Bordazarre Hiruritarra, Bidasoatik haratekoak, eta Frantzisko Lopez Alen donostiarra, Ramon Artola tolosarra, –Pepe eta Rosario poeten aita–, Ramos Azkarate tolosarra, Fermin Imaz donostiarra, Jose Manuel Imaz ondarrutarra, –bera ere hondoratze batean itoa–, Mikaela Zarra, eta Fernando Artola «Bordari» hondarrabitarra honunzkoak, bakoitza, noski, bere hizkera eta euskalki propioaren adierazgarriekin.

Gaiak

Gai nagusia tragediez mintzatzen ari baikara, itsasoaren haserrea, alegia, denboraleak eta ekaitzak dira eta ondorengo hondoratze eta hilketak. Aurkez ditzagun bada, kanten eta gaien ardatz eta xehetasun nagusiak.

Aldaztorrea (Data gabe)

Azkuek bildutako Euskal Kanten artean bada bat Gillerma Akarregi lekeitiarraren ahotik jasoa ALDAZTORREA deitzen dena. Bertan kontatzen da nola *markeak,* alegia, barkuak hogeita bi marinel (*ogetabat lengusu ta nebea*) galdu zituen itsasoan. Balada tradizionalen artean kokatzen ohi dute adituek eta hasierako laukoan ageri zaigu erroi zaharra, hots belea, zein Mendebaldeko iruditegian, jakina den bezala, tragediaren, fatu gaitzaren sinboloa den. Aspaldi-aspalditik gainera, zeren jadanik Mahabharata Indiako liburuan heriotzaren mezulariak beleekin konparatzen dira. Lekeitioko dorretxe hau ezaguna zen aspaldidanik, eta agian kontutan hartuta kantaren estiloa (*Aldaztorreak ateak dituz letuez / ango plater-pitxerrak zidarrez,* **Sandailia** kantan bezala, *Sandailiak ateak ditu zirarrez / nola zirarrez da ala zendalez…*) XV. mendetik datorke.

Zarrantzako penak (1690 ing.)

Nôtre Dame de Sarrance «**ZARRANTZA**» Donibane Lohizuneko badian aingura botatzen zuen 300 toneladako itsasuntzia zen. Batez beste 10 / 15

kainoi eta 50 / 55 gizonekin balearrantzan zebilen XVII. mendean. 1672-1678 urteetan Holandarekin gerran zelarik Frantzia, –garai hortakoak dugu, antza, *Jeiki, jeiki, etxenkuak…* kanta ezaguna–, Zarrantzak arriskua zela eta, Thierry Du Pasquierrek dioskunez[20] Espainiako bandera eta nahi zuen izena hartzeko boterea eta baimena zeukan.

Horrela behin Donibane Lohizunetik partitu zen 1672an Norvegia alderantz Thomas de Casabielle kapitainaren manupean eta itzuleran La Rochellako portuan atrakatu zuen. Beste batean 1675ean 20 kainoiz eta 60 gizonez hornitua, Marsans de Hirigoyen kapitain zuelarik, Sokoatik atera zen eta uztailaren 26an Groenlandiara iritsi. 1685ean abiatuko da berriz Donibane Lohizunetik arrantzara eta 1688an Samson de Haristeguy komandantearen gobernupean Groenlandia aldera. Kontuan harturik 1691n Haristeguy *La Fortune* itsasontzi kortsariko buru zela, pentsa daiteke 1688-1690 inguruan sortu zitzaizkiola Zarrantzari arazoak Ternuan eta urte horietakoa dela poema[21].

Eskuzkribuak dakarren B letra doinuari dagokiola uste dugu, eta garaiko aireez esan behar da Lertxundik dioenez[22] ohikoa zela frantses doinu erabilienak hartzea.

Habanako korbetaren galera (1820 ing.)

Hondoratze honen berri Frantzisko Lopez Alenek ematen digu[23]. Berak euskaraz entzun omen zuela ixtorioa eta zioetenez 1820. urte inguruan gertatu zen. Habanatik zetorren korbeta eta kalma handi batzuk pairatu ondoren azkenean ekaitzak bota omen zuen Gazteluko harkaitzen kontra itsasuntzia Donostia bezperako gauean. Bertsoak ere eskaini zizkiotela ger-

---

[20] Thierry Du Pasquier, *Les Baleniers basques*. Editions S.P.M, Paris, 2000, 157.

[21] Alfred Lassus, «Capitaines de navires et de corsaires de Saint-Jean-de-Luz», Saint-Jean-de Luz. EKAINA, 476.

[22] Gabriel Lertxundi, *Kantikak*. Belloc, 1948, xxvii.

[23] F. Lopez Alen, «Recuerdos donostiarras. El Naufragio de la corbeta», *Euskal Erria, Revista bascongada*, Donostia, 505-507. *Vida Vasca*, nº 42, 1965, 75-78.

taera tamalgarriari, dio, baina haietarik soilik bertso bat kontserbatu omen zuen herri memoriak.

Léopoldina-Rosaren hondoratzea (1842)

«LEOPOLDINA ROSA» Baionako portutik atera zen Montevideorantz eta Arturo Lezama Montoro[24] idazle uruguaiarrak honela kontatzen du haren ibilbide tragikoaren ixtorio tristea:

> «...en los primeros días de abril de 1842 partió la Fragata Léopoldina Rosa hacia su trágico destino. Trescientas personas, incluida la tripulación, navegan durante dos meses hasta avistar, con muy mal tiempo, la costa rochense en la cual naufragara...»

Albiste eta data hau ez dator bat, ordea, zehazki garaiko frantses Almanaka[25] batek dakarrenarekin, honek maiatza ematen baitu partidako data bezala.

> «Parti dans les pemiers jours de mai, de Bayonne pour Montevideo, sous le commandement du capitaine Frappaz, le navire le Léopoldina-Rosa avait à son bord, outre son équipage, 303 personnes, hommes, femmes et enfants, du pays de Basques, que l'espoir d'un meilleur avenir entraînait hors de leur patrie vers les plaines incultes de l'Uruguay. Après une longue traversée il fut assailli à l'atterrissage par une violent tempête qui le fit toucher par une nuit don't l'obscurité redoublait encore les dangeurs. Au jour on reconnut la terre; le Léopoldina était engagé sur les Castillos, rescifs situées sur le côte oriental d'Uruguay…».

Alegia, Euskal Herritik, hots, Baionatik atera zela itsasuntzia hirurehun eta hiru pasaiariekin Frappaz kapitainaren gidaritzapean Uruguai alderantz, han bizitza hobeago bat aurkitzeko esperantzetan. Eta trabesia luze baten ondoren ekaitz bortitz batek gau batez arrapatu zituela Uruguaiko ekialdeko kostan *Castillos* izeneko parajeko harkaitzetatik hurbil.

---

[24] Arturo Lezama Montoro, *Naufragio de la Léopoldina Rosa: 9 de junio de 1842*. Montevideo 2006.

[25] *Almanach-manuel du Journal des villes et des campagnes*. Pillet aînés, Paris, 1843, 171-172.

Tragedia hau 1842ko ekainaren 9an gertatu zen, eta honela jarraitzen dio bere ixtoriari Lezamak:

> «…Sorprendida la Léopoldina cerca de 3 días por una tempestad al S.-S.E y arrastrada de las corrientes, tocó las costas de *Castillos* el 9 de junio a las 4 y 45 de la mañana con un tiempo muy oscuro. Había entre el buque y la costa una distancia de cuadra y media...»

Lehen salbamenduko saioa *joan-etorria* deitu modalitateaz egin zen. Batela irauli zen, ordea, eta bertako bi marinelek nahiko lan izan zuten fragataraino igeri iristen. Kapitainak igerilari on bat bidali zuen soka arin batekin, zeinari beste lodiago eta tinkoago bat zegoen atxikia, lehen saioaren helburu berarekin. Eta beste zenbait marineli ere lan bera agindu zien, baina behin lehorreratutakoan ia gehienak izuak hartuta ihesari eman zioten, hiruk ezik. Egoera hain larri ikusitakoan askok bere burua itsasora bota zuen, batzuek igeri ez jakin arren, eta noski ito egin ziren. Antza denez handik zebiltzan *gautxoek* ere nahi adina lapurketa eta bortizkeria burutu zuten lehorreratzen ziren kutxa, hondakin eta pertsonengan.

Lezamak jasotako kroniken arabera untzian zihoazen hirurehundik soilik 56 gizon, 5 emakume eta 18 eskifaiakoak salbatu ziren. Hauen artean bigarren kapitaina, lehena ito egin baitzen, medikua eta zenbait fraide. Hauetarik batzuek Rochako Departamenduan kokatu zuten beren bizilekua, hau da, Castillos-en, eta hauen deitura batzuek besteen artean honakoak ziren: *Astigarraga, Bagéz, Ezpeleta, García, Inda, Lujambio, Onandi, Lanusse…*

Salbatu ahal izan ziren ongiak enkantera atera ziren Natalio Molina juezaren aginduz, Vicente Acostaren etxean, hemen baitziren itsasuntzi hondoratuaren hondakinak jaso.

Ekintza lazgarri honek sortarazi zituen bertsoak, lehenik 1857an argitaratu ziren Francisque Michelek Parisen plazaratu *Le Pays Basque…* liburu mardularen barnean PULUNPA deitu kanta bezala, eta bigarren aldiz, Goitiñok Los Angeles-n plaratu zuen *California-ko Euskal herria* berriketarian 1894ko uztailaren 28an, GOAZIN AMERIKETARA! (*Han leher egitera*), titulu kritikoaren pean, zeinbait aldaera eta osagarriz jantzia. Berriki Pierre Xarrittonek dioenez, Jean Etcheto «Katxo» (1790 -?) hazpandarra litzateke

egilea[26], baina neuk aspalditxo jadanik jaso nuen bezala hamabi bertsotako beste bertsioan[27]. Egun bizirik mantentzen dela tradizioa ikustearren hor dugu *Elaudi,* Iparraldeko musika taldea, zeinetan parte hartzen duen Marie Hirigoienek, eta zeinen *Denborarena* deitu diskan, 17. zenbakian entzun daitekeen *Pouloumpa* izenez beraien bertsioa.

Mari[28] (G.1866 – T.1881)

Jose Maria Zubia, Mari izengoitiaz Zumaian jaio zen 1809an eta Donostian hil 1866an. Askotan itsasoan larri zebiltzanak lagundua, ahalegin horretan bera azkenean ito. Donostiako moilean badu monumentu harrizkoa bere omenez eraikia. Poema hau Ramon Artolak idatzi eta aurkeztu zuen Euskarazko itz-jostaldietarako, Donostian 1881ean.

Saint-Paulgo gizajaleak (1868)

Hona nola kontatzen dituen euskaraz Bordeleko portutik Calcutta aldera partitu zen **SAINT-PAUL** itsasuntzia eta bidean pairatu zituen gaitz eta sufrimendu ikaragarriak. Hiru mastadun frantses itsasuntzi hau Ekialdeko itsasoetan zehar nabigatzen zuen. Constant Améro-k dioskunez[29], 1858. urteko uztailean eskifaia hogei gizonezkoek osatzen zuten eta Hong-Konggo portutik abiatu zen Australiaruntz bertako urrezko mehatzak esplotatzeko hirurehun eta hamazazpi txinatar zeramatzala, eta bidean deskalabru frango izanik, uharte arkaitsu batean abandonatu zituen txinatarrak oro. Handik denbora batera bertatik pasatzerakoan karga hartzera inor bizirik ez zuten aurkitu. Antza denez papuek irentsiak zituzten.

---

[26] www.hazparnen-bertsulariak.com

[27] Patri Urkizu, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. II, 1545-1900*, Etor, Donostia, 1991, nº 222, 497-498.

[28] Ramon Artola, *Sagardoaren graziya II.* A. Zavalaren edizioa, Auspoa, Donostia 2003, 97-99.

[29] Constant Améro, *Les aventuriers de la mer: tempêtes, naufrages, révoltes, hivernages.* Société française d'imprimairie. Paris, 1899, 283.

Handik bederatzi urtera **SAINT-PAUL**-en zorigaitzen artean antropofagia kasua dago, zein ez den bakarra izan lurralde eta hizkuntza ezberdinetako baladek adierazten duten bezala. Adibidez, portugesez *A nau Caterineta* deitua, ia kanta nazionala bihurtu dena, frantsesezko bertsioan *La courte paille* deitua, ingelesez William Makepeace Thackerayk argotean bermolaturiko *Little Billee*, gaskoinez *Dessua la ma* titulua daramana eta euskaraz *Ene muthilik tipiena*[30], Aita Donostiak hiru bertsioetan jasoa[31].

Azkuek[32] gure itsasuntzi honen tragediari buruz moldatu zen kanta baten bertso bakarra jaso zuen Ziburun, baina guk hamasei bertsotako kanta eta honen hitzaurrea prosaz aurkitu dugunez hemen emango ditugu.

Historia triste hau ere bere aldetik *Journal des Instituteurs des écoles*… delakoak jaso zuen[33], Dupré jaunak Ministroari zuzendu gutun batekin, non konparatzen duen *La Méduse*-ren hondoratzearekin, eta non Bernier, bigarren kapitainaren txostena ere ematen den. Hona euskaraz Baionan 1868an hitz lauz argitaratu zen ixtorioa.

Errepas bat horriblia itsasoaren gainian[34]

Mintzatu izan gira duela zonbait egun kasu handi batez, gerthatuz itsasoaren gainean, pasatu den afera triste eta nigar egin garria, erraiten zutelarik zortian tiratu eta bere proximo laguna jan behar izan dutela. Beraz ez da sobera baizik egia, afera hori gerthatu dela maluroski, ***Saint-Paul*** *izena zuen hirur mastetako untzi ederra partitua Bordeletik armaturik M. Heurtin kapitainarekin eta galdu juan den abendoaren hogoi eta bortzian, gauaz.*

---

30 Piarres Lafitte (ed.) *kantu, kanta, khantore*. Baiona, 1967, 162.

31 Patri Urkizu, *Balada zaharrez*. Erein, Donostia, 2005, 50-61.

32 Resurrección M. de Azkue, *Cancionero popular Vasco*. Bilbao, 1923, nº 621, T. II, 748.

33 *Journal des instituteurs des écoles normales primaires, des classes d'adultes et des salles d'asile. Recueil hebdomadaire*, Paris, nº 15, 12 avril 1868, 198-199.

34 *Un horrible repas*. Bayonne, E. Lasserre 1868.

M. Dupré kontra-amirala Réunioneko gobernadoriak adrezatu izan dio mariñako ministroari untzi hartako bigarren kapitainak egin duen erreporta nigar egin garria; begira gaudelarik inkesta baten egiteko han eskapatu diren marinelek indar puska bat hartu artian.

Orai publikatzen dugu osoki erreporta hori. Huna nola den.

Partitu ginen Calcutako ur handitik Marseillarat jiteko juen den hazilaren hogoian eta egin bide heguako alderat, eta abendoaren sei garren egunian kuloba desarranjatu, eta untziak bide makhurra hartu iruzkia jalgitzen den parterat (82º longitude) eta nola haize flakoak baitziren eta sanjakorrak; hala ere juan ginen abendoaren hamabi arte ahal ginuen bezala, eta gero haize heguak eta iruzki haiziak hartu gintuzten eta konduisatu hogoi eta bortz artino. Orduan haizea hasi zen azkartzen bere bothererik handienian lagundua zelarik ihortziri karraskez eta uri sufernez. Kapitaina bere kalkula guzien arabera untzia kausitzen zen bere bidetik eskartatua hiruretan hogoi eta hamar milla metra bere bidetik orienteko parterat Rodríguez erraiten dakoten kartier batian. Kontinatu ginen gau hartan gure bidin orienteko partetik heguako parterat hamekak orenak eta erdiak arte, nun untziaren aintzinian zagon mariñela jin baitzitzautan prebenitzerat lanjer handitan ginela. Berehala eman nituen nere ordriak untziaren posizionian emaiteko tenpestaren kontra ihardokitzeko

Oraino ez nuen gomendatzen finitu, nun untziak zerbait hunkitu baitzuen eta nun gubernailla hautsi baitzen bi pharte.

Orduan ikhusirik ez ginezakela deusik egin emanarazi nituen kanota eta xalupe urerat, difikultate handirekin erreusitu gure kapitainaren xalupan emaiterat, zeren eta eri handi baitzen eta indar guziak galduak Calcutan izan zuen eritasun handi baten ondorioz.

Erreusitu ginuenian kapitainaren xalupe handian emaiterat okupatu ginen berehala jateko biskotxaz eta edateko uraz. Bainan inutilgi zeren ezin salbatu ahal gintuen hogoi libera biskotxa eta barril ttipi bat ur baizik eta konpas bat. Xalupa handia zen beraz muntatua kapitainaz eta hamar gizonez. Eta kanota aldiz bigarren kapitainaz eta bortz gizonez. Orduan juan gira puska bat hirriskutik largorat eta egon eguna jin arte; argitu duen phondutik hurbildu gira untzi malurosari,

bainan inposible izan zaiku aski hurbiltzia, saiets baten gainerat arras aurdikia zen arras largorat, eta aintzineko maste hautsia zen arrasetik, eta masta handia berriz erditsutarik, nun deusik ezin salbatu ginuen.

Kapitainak examinatu zuenian gure posizione tristia, ezagutu zuen Cargadoseko islaren gainian ginola, eta denbora berian ezagutu zuen kronometrak tronpatu zuela, eta isla hartan zonbait oren ibili ondoan pasabide baten xerka, nahiz isla hartan sartu, bainan etsitu ondoan ez ginuela pasabiderik libro, konsultatu ginen elgarrekin, eta menturatu ginen Maurice erraiten dakoten kartier bateri buruz abiatzeko hil edo bizi.

Abendoaren hogoi eta bederatzian haize hegua handi bat jaiki zen eta gure xalantari jarraikitzen baitzen kanota onduan uzkali zen eta bigarren kapitaina eta bortz gizonek urerat erori; hori ikhusirik ahal gintuen bezala eman gintuen gure xalanterat, eta gero gure xalantaren eta gure indarraren medioz parbenitu ginen kanotaren salbatzerat, salbamendu hori egin eta bigarren kapitainak eta bortz gizon hoiek berek hartu zuten kuraierekin eta guri segitu ziren.

Abendoaren hogoi eta hamarretik eta hameka arteko gabian haize handi bat altxatu zen egundaino baino borthizkiago eta itsasoa samurtu eta gaxtatu, nun obligatuak izan baiginen gau guzia lamen gainian egoiterat batere higitu gabe; argitu zuenian partitu ahal ginen lekhu hartarik.

Kapitaina erran dugun bezala eri handi izan eta gu bezala bere biziaren salbatzeko penatu zen, eta akhitu, eta bere azken hatsa eman zuen eta Jainkoari khondu errendatu egun hartan berian goizeko hamekak eta erditan, orduan hurbildu ginen gure bigarren kapitainaren eta bortz gizonen ganat heien prebenitzeko, zer malur arribatu zen erraiteko. Oro elgarren ganat bildu ginenian othoitz puxka bat egin eta botatu genuen haren gorphutza itsaso triste haren zolarat. Gau hartan itsasoa eta denbora arras edertu ziren hameka orenetako eta kanota aparantziaz gure ganik urrundu zen, eta oihuari erreposturik ez emanez konbenitu ginen bezala trabersian jarri ginen argitu arte.

Kontinuatu dugu beraz gure bidia phentsatzen ginuelarik gure estimuaren arabera errekontratuko ginela Maurice erraiten dioten kartier batera, edo bederen Reunion erraiten dakoten batera; ikhusirik ez ginezakela bat ez bertzia hatzeman, etsitu ginuen.

Biharamunian urthe berri egunian 1868an konsultatu ginen eta abiatu, eta hartu Madagascar erraiten dakoten kartier batera gure direkzionia; bainan ordukotz ez ginuen laur litra ur eta bi libera biskotxa baizik; abiatu ginen beraz iruzkia sartzen den pharterat, denbora eta itsasoa gaxtuan gintuen, urtarilaren hirur artino. Arrats hartan partitu ginuen gure bitaillaren azkena ez baitzen gaitz, bakhotxarentzat ahamen bana eta hurrupa bana.

Biharamunian urtharrilaren laurian, haizia eta itsasoa kalme ziren, bainan guk ez ginuen ez jateko ez edateko gehiago. Arratsian gosiarekin eta egarriarekin, gehiago ezin egonez, (Oh! memento tristia!) konsultatu ginen, eta menturatu resoluzione hartzerat ***zortiaren tiratzeko****, zoin izanen othe ginen sakrifikaturik izan beharko zena gure gose eta egarri krudelen apazeatzeko eta gure herioaren urruntzeko.*

Zorte hortan erori zen beraz gurekin Frantziarat heldu zen pasajer Julien Girardin izena zuen baten gainerat, nun miserable hark erresoluzione hartu baitzuen bihotz onez bere zorthe tristeari.

Haren odola edan ginuenian desalteratu ginen eta gure egarri geia haren odolak arras itho zuen eta haragia pharte bat konsumatu eta bertze phartia enterratu dugu Madagaskarreko lurrian, nun aperzebitu baiginen urtharrilaren seien arratsaldeko bi orenetan. Memento hartan haiziak arras abandonatu gintuen eta nahiz gure flakezia handia izan hala ere hasten gira arrauekin gure egin ahalaren egiten, azkenian arribatzen gira bada lurrerat urtharrilaren zazpian goizeko zortzi orenetako d'Ambato-Malhama erraiten dioten punta batian.

Orduan oro flakatzen gira, bainan hala ere bi gizonek badute indarrik aski Malhamboko lehenbiziko herrira juaiteko, edo arribatzeko, berehala hango jende xuriak eta ofizierrak eman izan ziren gure disposizioneko, eta igorri dituzte jendiak gure bilha; egun hartaz geroztik kontino arras eri izan niz nun ez bainaz izan kapable gure erreportaren egiteko orai arte.

Egina Mahambo Madagaskar. Urtharrilaren 10 an 1868.
Sinatua Bernier 2n kapitaina.

Ropart-Kircho-Leray-Noel Montfort- Regnaut – Bridor-Hucien Durand eta Martinau Mariñelak. Kopia Duplikataren konforme pasatua gure eskuetan.
St Denis otsailaren 17 an 1868.
Mariñako komisarioa sinatua. D. DE GAILLANDE.

Ville-du-Havreren hondoratzea (1873)

Jean Etchepare donapaleutar koplariak[35] krimenei buruzko baladez aparte bi kantu ezberdin moldatu zituen naturak eragin zorigaitzen gainean, hau da, bat 1873an gertatu **VILLE DU HAVRE**-ren hondoratzea kontatzen diguna, lainoek eta ekaitzak eragina, non *226 pasajers ithorik* bukatu zituzten beren egunak, eta bestea 1875eko *inondazioneak,* uholde izugarriak aipatzen dituena.

VILLE - DU - HAVRE itsasuntzia Ingalaterran eraiki zen eta *Compagnie Général Transatlantique* deituak eginarazitako azken pakebote gurpilduna zen. Le Havre-tik New-Yorkerako itsas bidaia egiten hasi zen 1866an NAPOLEON III-a izenez, baina 1871-72an berregin zuten hamazazpi metroz luzatuz, helizez hornituz, eta bi masta ordez hiru eraikiz. Eta beste izenez bataiatu zuten, hots, VILLE - DU - HAVRE gisara, zerbitzuari 1873ko martxoaren 3an heldu ziolarik berriro. Urte honetako (1873) ekainaren 6an, CURAÇAO hiru mastadun itsasuntziarekin topo egin eta hondoratu egin zuen Hudsongo badian. Azaroaren 16an utzi zuen Le Havre 313 pasaiariekin eta gau beltzean LOCH EARN hiru mastadun angelesarekin talka egin eta hondora joan zen hamabi minuturen buruan[36]. 61 pasaiari eta ekipaiako 26 bakarrik salbatu ziren, zein TREMOUNTAIN itsasuntziak bildu zituen, azkenean Bristolgo portura arribatu zirelarik. Bere aldetik LOCH EARN hurrengo urtean azaroaren 18an hondoratu zen[37].

---

[35] Patri Urkizu, «*Jean Etchepare koplariaren konplaintak, (1873-1890)*». *Revista de Lenguas y Literaturas catalana, gallega y vasca*. UNED, Madrid 2010, 171-233.

[36] «Le magnifique transatlantique français La Ville-du-Havre, venant de New-York avec de nombreux passagers fut abordé, au milieu de sa traversée, par le troi-mâts en fer, le Loch Earn. Le choc fut reçu par le bateau à vapeur du côté de tribord en face du grand mât; il ouvrit une brèche de plusisieurs mètres par laquelle la mer se précipita. Le bâtiment commença à vaciller, les mâts s'abbatirent l'un après l'autre, écrassant dans leur chûte les malheureux qui essayaient de mettre à l'eau les canots de bord.

Un moment après le transtlantique disparaissait submergé. Le capitain du Loch-Earn multiplia les efforts pour le sauvetage des survivants; mais deux cent vingt-six peronnes trouvèrent la mort dans cette catastrophe» (Constant Amaro, op. cit., 100.).

[37] www.frenchlines.com

Maiz gertatzen ziren horrelako hondoratzeak itsasoko bidaietan, hain baitziren arriskutsuak, eta adibidez urte batzuk geroxeago 1882ko urriaren 29an Bretaña aldean ekaitzak ohi bezala bortizki jo zuen eta kalte gaitzak erakarri. Ondorioz Dieppe-n azaroaren 4ean koplari bretoiak gertaerari buruzko bertso-paperak moldatu eta saldu zituen hamar zentimotan, *en profit des familles des naufragés*, hots, hilen familien alde sosak biltzen ahaleginduz bere kanten bidez.

Aita Donostiak[38] Saran bi bertsio jaso zituen (nº 1007, nº 1008), baina Jean Etcheparek moldatu hamabi bertsoko 1876ko bertsiotik 1913ra soilik bi bertsoko kanta iritsi zen, bi bertsiotan, lehena eta seigarrena. Bata, Maria Agerre Lehetchipikoaren ahotik jaso ahal izan zuen1912ko urriaren 30ean eta bestea, bertako neskamearenetik 1913ko urtarrilaren 15ean.

Carmencita-ren erreskatea (1874-IV-17)

Ez da lehena ez eta azkena izango denboralaren eraginez Donostiako badian itsasuntziak amarrak askatu eta hondarrean agertu izana. Horixe gertatu zitzaion, adibidez, 1874. urteko apirilaren 17an *Mary Lawson* goleta ingelesari. Kasu honetan trajediarik ere gertatu zen, zeren bi gizon ito baitziren eta hiru larri ibili. *Eulalia* izeneko korbetan zegoen tripulazioa *Carmencita*-ra pasatu zen, eta hauek salbatzera treineru bat atera zen *Romanita* izenekoa.

Hona nola Santarderko *La Voz Montañesa*-k kontatzen zuen denborala, *El cuartel Real*-ek zioenez:

> «Ayer fondearon en este puerto, de vuelta de su expedición á Santoña, á donde habían ido conduciendo tropas, los vapores *Fomento, María, Vivar é Ibarra número 2*. No podemos menos de lamentar lo que con los soldados ha ocurrido en este viaje; pues han estado por espacio de cincuenta y dos horas á bordo de los vapores sin habérseles proporcionado alimento alguno hasta el último día, por causa del temporal que lo impedía. Nuestros lectores pueden figurarse lo

[38] P. Donostia, *Cancionero Vasco*, T. VIII, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1994, 1391-1393.

> que aquellos infelices habrán sufrido, cuando sepan que á bordo del Ibarra se asfixiaron dos, uno de los que habrá fallecido probablemente á estas horas. Se nos asegura que á haberse tenido lanchas dispuestas al efecto, pudo con algún riesgo, haberse echado á tierra á toda la expedición.»
>
> ¡Pobres borregos que llevan al matadero, y ni siquiera merecen una mirada de compasión por quien se sacrifican.[39]

Euskal bertsogileak 18 bertso ondu zituen, salbamenduan parte hartu zutenen izenak emanez 11, 12 eta 13. bertsoan. Donostiako Konstituzioko Plaza 7-an Juan Oses-en inprimategian moldiztegiratu zen bertsopapera, non beste itsasoko abenturak ere, hala nola Ortega y Frías-en *El Naufragio de la Medusa*-rena inprimatuak izan ziren (*Libros a cuatro reales tomo*).

Jonas eta Ana

Hona Ramon Artola, poeta donostiarrak 1876ko urrilaren bederatzian *Hero eta Leandro* balada klasikoaren bertsio berria nola eman zuen[40]. Lehenago Wilhem Humboldtek entzun omen zuen ipuin gisa Bermeon ixtorioa, «Eine eigene Umänderung der Geschichte Heros und Leanders» [41] bere Espainia eta Euskal Herriako bidaia liburuan kontatzen digunez, euskara maila apalagatik hura bezalako beste ipuinak jaso ahal izan ez zuen arren. Zortzikoak laukotan bilakatu ditugu, errimaz hobeto ohartzearren.

Verso berriac Micaela zarranak paratuak

Ez ziren gizonezkoak soilik, ongi dakigunez, bertsolariak, eta bilduman Mikaela Zarranak moldaturiko hamasei bertso dauzkagu. Apaiztegi jauna-

---

[39] *El Cuartel General,* 1874-IV-26.

[40] Ramon Artola, *Sagardoaren graziya II.* Auspoa, Donostia 2003, 72.

[41] Wilhelm von Humboldt, «Tagebuch der Basquenreise», *Schriften zur anthropologie der basken.* Herausgegeben von Bernhard Hurch. Ferdinand Schöninfh, Wien 2010, 334.

ren barkuan gertaturiko tragediez, *nafarreria* deitu gaitzez eta nola hiru arrapatu eta berekin eraman zituen itsasoaren sabelera.

Lusitania-ren hondoratzea (1915)

Lusitania luxuzko itsasuntzi ingelesa zen, New-Yorketik Liverpool-era egiten zuena bidaia bi mila pasaiariekin eta eskifaia zortzirehun pertsonena zelarik. Uretaratu zenean bere bizkia zen MAURETANIArekin munduko itsasuntzi haundiena zen. Egunean mila tona ikatz irensten zituen 25 nudotara joanik, eta Zinta Urdina jasotzearren egina zegoen, hau da Atlantikoa zeharkatzen denbora gutiena ematen zuen itsasuntziari eskaintzen zitzaiona.

Gerra garaia zen eta alemanek arazo handiak sortu zizkieten ingelesei. Hala eta guztiz ere Washintongo alemaniar enbaxadak abisua hedatu zuen prentsan esanez itsasuntzi horretan enbarkatzen zutenek eta Britania Handiko itsasuntzietan edo hauen aliatuenetan beren errespontsabilidade osoz egiten zutela, gerla objetibo gerta baitzitekeen.

Horrela bada, 1915eko maiatzaren zazpian Irlandako hegoaldeko kosta zihoalarik alemaniar submarino batek torpedoz hondoratu zuen LUSITANIA. Mila ehun eta laurogeita hamazortzi hil gertatu ziren, zeinetarik 124 iparamerikarrak ziren. Zazpirehun eta laurogeita bost pasaiari ere hil ziren, zeinetarik berrehun eta laurogei ta hamaika emakume eta laurogei eta hamalau haur. Pasaiarien artean Vanderbilt milionarioa ere zihoan, eta ingelesa ez jakin arren Bizente Egañak, *Olabeagan jayota / Abandon bataiatua / Mejikoa juan zan oso gaztia*…, bertso paperak dioen bezala, asko eta asko salbatu zituen kronika guztiek azpimarratu zutenez.

Enbaxada alemaniarreko batek itsuski gertaera tragikoareen gainean hitzok esan zituen, *ez gara errudun pertsona hauek bere buruaz beste egin nahi izanaz*. Jakin zen egun berean Londresen manifestaldiak izan ziren eta Aleman komertzioen Ekintzak. Errespontsabilidadeak alemanak ez ezik badirudi kapitainak eta ingeles gobernuak zituela, armak karreiatzen zituenez transatlantikoak. Gertaera honen eta antzekoen ondorioz Estatu

Batuek gizarte iritziak bultzaturik I Mundu Gerran parte hartzea erabaki zuten.

Eskualduna- k Baionako astekariak honako kronikatxoa zekarren gertaeraz:

> Lusitania untzi handi hartako bi mila eta gehiago jendetarik omen dira 703 bizirik athera dituztenak 45 ondoan hil direlako berria dugu.
>
> Itho dire 1502. Zer jendetza! Gero-ta samurrago dire Norte-Amerikanoak, zuzenik gabe hil diozkotela hoik oro eta untzi bat ederra suntsitu dutela, anglesa izanik ere jauz-araz etzezaketena gerlako legen arabera. Pekatu beharko dutela, diren bezalakoek, alemankeria hori eginik, bertzen gainera.
>
> Ez dire izituak Amerikanoak; bertze untzi bat itsasoari lotzera zoana, 879 pasaientekin aitzina joan da, ukho egite orde; 879 pasaientetarik 12 dire bakarrik gelditu leihorrean, lanjerari lotsaz.
>
> Ageriko alemanek hats bera dutenez atxikiko, mundu guzia gontzetarik jauz arazi arte.
>
> Burutik badutenez gaude, hoinbertze etsai zahar eta berriren ez baitire beldur![42].

Eta hona *Euzkadi* aldizkarian gaztelaniaz beste albisteen artean euskal heroiaz agertu zen albistea

Un vasco heroico

> Paris. «Le Figaro» de hoy publica un telegrama dando cuenta de que un vasco, llamado Vicente Egaña, se distinguió por su heroismo, salvando á muchas mujeres y niños de la catástrofe del «Lusitania», con gran exposición de su vida.
>
> Vicente se negó á tomar sitio en los botes de salvamento, cediendo su puesto á una señora.
>
> Después recorrió el buque de punta a punta dando ánimos a las mujeres y á los niños, conduciendo á las escalas de manos para depositarlas en las canoas.

---

[42] ESKUALDUNA, 1915-V-14.

> Para todos tuvo frases de consuelo, haciendo fiestas a los niños con verdadera sangre fría, para infundir ánimo a sus madres.
>
> Cuando ya el buque habíase hundido, Vicente Egaña se lanzó al agua, siendo recogido poco después por una canoa[43].

Gertaera honi buruz gipuzkoar bertsolari gipuzkoarrak moldatu zituen bertso berriyak, hogeita bi zortziko handitan, edota iparraldekoen eran hemezortzi silabatako laukoetan.

Domecq marinelaren hiltzia

Bukatzeko gaiei buruzko aurkezpentxo hau ekarriko dut hona gerra zibilaren garaian gertatutako hilketa triste baten oroitzapena. Pierre Bordazarrek «Etxahun-Iruri»k moldatu zuen[44]. Zortzi bertso ditu eta bertso bakoitzak sei bertsolerro. Domecq izeneko Donibane Lohizungo marinel baten desgrazia du kantagai. Ageri zaigu artxiboetan Roger Domecq bat, agian hilaren anaia zitekeena, Frantziatik desertore bezala eta gero Miranda de Ebroko kontzentrazioko zelaian presoen artean[45]. Zortzi estrofa hauetarik Maika Etxekoparrek hiru soilik abesten ditu[46].

Ondorio gisara

Atarikoan eta bilduman zehar aurkeztu gaiek eta kantek gogorarazten digute Jesus Maria Leizaolak zioena XX. mendeko gertaeren kronika egiterakoan eta hauen oihartzuna euskal poesian, nola azpimarratzen zuen bertsolarien gertakizunekiko atxikimendua, historia hurbil eta urrunarekiko lotura, ikuspegi zorrotza, hala nola zenbait kasutan ironia eta umorea. Hona espreski hitzak:

---

43 EUZKADI, 1915eko maiatzaren 12an.

44 Jakes Larrondo (ed.), *Etxahun-Iruri khantan*. Pau, IPA, 1977, 94-96.

45 Guy Lalanne et Jacques Ospital, *1936-1945. Ascain, Ciboure, Saint-Jean-de-Luz, Urrugne*. Témoinages d'une époque. Kakintza/Clermont-Ferrand, 2010.

46 Txomin Artola et al., *Itsas kantuak. Chants de marins*. Elkar 2010.

> Lo más importante, acaso, a deducir del presente estudio es que los vascos, aun en sus capas populares, han gustado de apreciar en su más alta importancia los acontecimientos históricos; no se han limitado a considerar los hechos cotidianos que han suscitado una emoción local más o menos pasajera. Cuando les ha tocado ser actores, en calidad de elementos de una gran masa, en una importante empresa, les ha interesado representarse ésta en su conjunto y en las cumbres mismas en que era dirigida. Por lo cual, al lado de las composiciones poéticas que han dedicado cada día a los episodios en que tomaban parte, han sabido reclamar la gran crónica que situara sus experiencias directas y personales en el cuadro universal del que eran tan sólo detalles particulares[47].

Baladen multzo zabalaren artean bada, beraz, sail bat itsasoarekin lotua dena batipat kontatzen diguna tragedien kronikak, gehienetan data zehatzak emanik, zein izan ziren itsasuntzi hondoratuak, hauen izenak eta zein itoriko pertsonaiak. Hogei bildu ahal izan ditugu gure ahalegin honetan, eta ez nintzateke harrituko bazterretan denboraz gehiago aurkitzea, euskal marinel eta arrantzaleak ekintza gizonak idazleak baino areago izan arren, estuak, handiak eta maiz tragikoak izan baitzituzten itsasoarekiko harremanak.

Kanta bildumatxoa, beraz, oroimen hori gal ez dadin asmoz duzu burutua.

---

[47] Jesúa Mª Leizaola, *Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la poesía vasca.* Ekin, Buenos Aires 1974, 93.

ITSASOKO TRAGEDIEN KANTA BILDUMA





I

ALDAZTORREA[48]

[Erraina] Aldaztorrean nengoanean irra[49] goruetan
Etorri jatan erroi zarra grauetan, grauetan.
– Erroi zarra, zer dakarzu albiste?
[Belea] – Ala markea galdu dala dinoe.

---

[48] R. M. Azkue, *Cancionero popular vasco*., Bilbao, 1923. 2. ed. 1968, T. II, 932.

[49] Irra, hots onomatopeikoa, *irra goruetan* «hilando».

[Erraina] – Galdu naz, bada, alaba ditxa bagea.
Antxe nebazan ogeta bat lengusu ta nebea.
Arek baino bearrago aita neurea,
Arek guztiak baino azkarriago jaubea.
[Amaginarreba] – Zer dinona, puerka lotsa bagea?
Azkanengo esan dona jaubea?
Esan baebanan lenengotatik jaubea,
Izango ebanan Aldaztorrean partea.
[Erraina] – Nik neurea dot goian dagoan kaxea,
Tapez taperaino diruz betea.
Imineagaz neban urre gorria,
Anegeagaz neban urre zuria.
Mila dukat neban isil poltsea,
A bere bazan alaba on baten dotea!
Aldaztorreak ateak dituz letuez,
Ango plater-pitxerrak zidarrez.
– Joan ala egon eingot, ama neurea?
[Amaginarreba] – Joan! joan, neure alaba maitea!
[Erraina] – Aurtxo txikinak deust ostiko,
Jaun zerukoak aldau semea sortuko.
[Amaginarreba] – Nai dan semea, nai dan alaba,
Aldaztorrean partea izango dona.

II

ZARRANTZAKO PENAK[50]

1. Hainitzen ahotikan bai diat aditu,
Denborak lehendanik direla ematu,
Mainak aurthen gurekin izatu baitire,
Mintzatu beharko ziteian bertzela ere.

[50] Patri Urkizu, *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*. Durangoko udala 1987, 102-105. Música B. Metrika: 13 AAAA.

2. Noiz ere baitzituen hamasei otsailak,
Eman izan gintuan hiritikan belak.
Ilhabete hunek gintuan fagoratu,
Ordainez martxoak xoil kruelki tratatu.

3. Martxoak hirurean hasi alta[51] urtzen,
Itsasoa zuan haizez osoki armatzen,
Ez huan ordutikan hilaren finaraino,
Izatu pausurik guretzat egundaino.

4. Zenbat belatxo hartze, zenbat trebes jartze,
Papaioa[52] nausi eta gabiatik galtze,
Hamahiruraino gintian frogatu,
Momentu tristerikan han artean pasatu.

5. Hamalaurean huen haizea hain handi,
Halaber itsasoa hanbat izigarri,
Non baikinduan jarri biharamun artian,
Su eta khepean hekin burua etsian.

6. San Josephen bezpera hire egun tristea,
Orduko itsasoaren gauzaren dorphea,
Espantitzeko zuen nola gure untzia,
Etzen erdiratu egun hartan guzia.

7. Lema bastoina zuan egun hartan hautsi,
Bai eta papaioa ezin hartuz utzi,
Bai gehiago dena lemako burdina,
Hautsia aurkhitu, han zuan bada mina.

8. Hirur palenkuz[53] gindian lema trunkatu,
Eta sahetsetarik palenkinez[54] hartu,

---

[51] *Alta,* ordea.

[52] *Papaio, papahigo*, Guillén y Tatoren arabera horrela deitzen zaio lau puntako belari, bai karratu bai trapezoidalari. (Migel Laburu, *Itsas dokumentu zaharretan erabilitako hitzak jasotzen dituen hiztegi laburra.* Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1992, 86).

[53] *Palenku*, palanka.

[54] Palenkin, sokaburu (cabo) edo aparejua belak jasotzeko balio duena.

Lema bastoina ere fite zuan moldatu
Eta delienki bere tokian sarthu.

9. Bertze egunez deus ere erranagatik,
Ezkintuan batere hobeki horgatik,
Gure egun guzietako penen errateko,
Aithortzen diat ni sobra naizela flako.

10. Ez zituan ez xoilki haize itsasoak,
Gure hituan etsai egun orozkoak,
Bertze etsai berri bat zuan hekin juntatu,
Tronpan bietako ura belan agertu.

11. Ordu hartan nituen bertzeak ahantzi,
Kontsulta egiterat goiti iganarazi,
Ur hura nondikan heldu othe zen jakiteko,
Eta gero zenbait entsaiu egiteko.

12. Hainitz luzatu gabe bazuan berria,
Brankaren azpitikan zela ithurria,
Halaber orain bazela aborreko[55] aldean,
Istripak utzia beso bat hartzean.

13. Ordu hartan ziteian bai deliberatu,
Purrina[56] ematerat laster entsaiatu,
Brankaren ezpartza[57] nola ur handian baitzen,
Alferrik zituan hartako pulunpatzen.

14. Oh! Bada zuk dakizu, Jauna, o handia,
Ordu hartako gure bihotzen berria,
Fagoratu gintuzun, jauna, zure graziez,
Eskerrak merezi dituzu bethi ordainez.

---

[55] *Aborra*, Brankara begira ezkerraldea.

[56] *Purriña*, alkitrana.

[57] *Ezpartza*, espartzu.

15. Aphirilak zituen justu hemeretzi,
    Noiz ere baikinduen zundaz ardietsi,
    Bazko egun handian ginduen atheratu,
    Biaramunean Plazentzan[58] barnan sarthu.

16. Fofertsa[59] behar diat hemen bai aiphatu,
    Zenbat untzi gaxo hura zen tormentatu.
    Jakin ezak *Zarrantza* dela haren izena
    Jaungoikoak bethi demola[60] fortuna ona.



[58] *Placencia*, - Plentziaren izen zaharra, Ternuako portua.

[59] *Il faut faire ça* > *fofertsa*, asuntua, afera.

[60] *Demola*, adizkera trinko zaharra, *eman diezaiola*.



Baionako Euskal Erakustegiko Eskuzkribua, MS97

III

HABANAKO KORBETAREN GALERA[61]

Txoriya bezin aguro ontzi ederra bat batean
Aizeak utzi zuben geldirik Gaztelubaren atzean.
Eta erriyen egun santuan nairik sartu Donostian,
Nunbait Jainkoak maiterik sartu zituben danak zeruban.

[61] José Ramón Pérez Alen,»Recuerdos donostiarras. El naufragio de la corbeta». *Euskal-Erria, revita bascongada, 505-507. Vida Vasca*, nº 42, 1965, 73-75.

IV

LÉOPOLDINA-ROSAREN PULUNPA[62] (1842)



Léopoldina-Rosa itsasuntzia

1. Mila zortzi ehun eta berrogoi eta bigarrena,
Uztail[63] hilabetearen hamaseigarren eguna,
Kantu berri xarmagarri hauk eman izan nituiena,
Suiet bat errekontraturik zitakeien ederrena.

2. Sujet bat ederra zela guzia da egia,
Inposible litzateke horren disimulatzia.
Malur horrek harrituren tu España eta Frantzia,
Horren bertze pasaierekin galdu izan den untzia.

3. Han[64] ziren pena handiak erresusarik gabiak,
Herioa[65] ikhusten eta ihesi ezingiak.
Han baziren gure jendiak, ahaidiak[66], adiskidiak:
Miserabliak itho dira, heiek egin dituzte Indiak.

---

[62] Francisque Michel, *Le Pays Basque*, … F. Didot, Paris, 1857, 348-352. Metrika: 15 AAAA; Elaudi taldearen *Denborarena* diskan ageri da zati bat 16. lumeroan.

[63] B deituko dugun 1894ko bertsioan, *uztailaren*…

[64] *Hauk* (B).

[65] *Heriotzea* (B).

[66] *Aideak* (B).

4. Untzi hartan haste hastetik, Baionatik pharthitzetik
Zer nahi sofritu dute pena guzien parthetik;
Urrun bethi plazerretik Monte-Bideorat heltzetik,
Nigar eta heiagoraz phartitu dira mundutik.

5. Senharra eta emaztia bere haurrekilan
Gerlan aritu izan dire heriorekilan[67];
Azkenian itho dira oro elgarrekilan,
Itsasoaren kolerak juan ditu berekilan.

6. Suietik aski badugu gure baithan sartzeko,
Arima gaixo horien zerurat gomendatzeko.
Zer malurra horien dako, exenplu bat guretako,
Bihotzean sar balakigu, maiz Jainkoaz orhoitzeko.

7. Ikhusi ginituienian Monte-Bideoko leihorrak
Han ziren mundu huntako plazer guzien ondarrak:
Hantik goiti deihadarrak, nigarrak eta marraskak[68],
Mila fritz[69] egin zituien itsasoaren indarrak.

8. Deusik ez da gizona ez gizonaren jakina,
Guziak garhaitzen ditu Jainko jaunaren dohainak:
Han itho dira gizonak igerika zakitenak;
Bertze batzu eskapatu batere ez zakitenak.

9. Kapitainaz kestione mintzo dira jendiak;
Nik ez dezaket juja zoinek dioten egia.
Ez da remediorik engoitik hek juanak dira.
Afera[70] hortan auzitarat nihor ez daite abia.

10. Untzi haren kapitaina zen gizon jakina,
Ez zen kargu hartarako izan ez balitz entzuna;
Hura ere gu bezala hiltzera mundura jina,
Han itho diren guzientzat hura izan azken orena.

---

67 *Herioarekilan* (B).

68 *Malurrak* (B).

69 *Frisa,* okzitanieraz *Puska* (B).

70 Afera (B).

11. Mundu huntan laur kantoin bazter guzietan,
Berri hau hedaturen da, ez da dudarikan;
Arribatzen denian heskualdun herrietan,
Aita amak urthuren dira nigarrez xagrinetan.

12. Berrehun eta hogoi eta hamabi presuna
Mement batez funditu dira, oi zer bihotz mina!
Zerurat egiten zituzten marraska, oihu saminak[71],
Othoizten zituztelarik Jainkoa eta Birjina.

13. Untzi hartako presuna gaixuen gidaria
Badakit nungo seme zen pasaierketaria.
Ofizio miserablia zuien, ene idurian:
Bere pasaier guziekin zeruan dago agian.

14. Urrikaltzeko dira pasaierketariak:
Heldu zaizten urthiak baino juan direnak hobiak.
Letra letraren gainian igorri behar dira,
Frantzian lurrik duiena ez dadin hunat abia

15. Frantziatik jin ginen zer nahi den gostarik,
Ginituien erresursa guzia xahuturik:
Monte-Bideon gira orai xagrinez[72] aberasturik,
Eskual herriaz oroitzean nigarretan urturik[73].

16. Hamaseigarren bertsu huntan orai nuha sartzera,
Suieta frango banuke, bainan presatzen naiz finitzera.
Monte-Bideorat jin nintzan kantu hauien moldatzera,
Oxala juan banindadi Baionarat kantatzera!

---

[71] *Marraska, oihu saminak*, kanta tragikoetan ohiko estilemak.

[72] *Xangrinez* (B).

[73] Hamabosgarren bertsoko azken bertsolerroa Michelek jaso zuen bertsioan falta da, eta hona nola 37 urte geroago Goitiñok argitaratu bertsioari esker kanta osatu ahal izan den. Bestalde, argi eta garbi dago, beraz, koplaria emigrazioaren kontrako ageri zaigula.

California-ko ESKUAL HERRIA

Berriketari Eskualduna agertzen dena Larumbate guziez.

LIB. 2a—Nº 48. LOS ANGELES, CALIF., UZTAILAREN 28a 1894a. PREZIOA: 5 SOS.

Eskual-Herria.

The only Basque Newspaper in North America, published in Los Angeles, California, every saturday.

J. P. GOYTINO, Editor,
330 New High Street.

Entered at the Post Office at Los Angeles, Calif., as second class matter.

Eskual-Herria.

Le seul journal basque publié dans l'Amérique Septentrionale, paraissant à Los Angeles, Californie, le samedi de chaque semaine.

J. P. Goytino, Rédacteur,
330 rue New High.

Eskual-Herria.

El unico periodico bascongado publicado en la America del Norte. Parece en Los Angeles, California, el sabado de cada semana.

J. P. Goytino, Director,
330 Calle New High.

Eskual-Herria.

L'unico giornale settimanale Basco pubblicato in l'America Settentrionale. Esce ogni sabato in Los Angeles, Cal.

J. P. Goytino, Editore,
330 V a New High.

Eskual-Herria.

Die einzige Baskische Zeitung in Nord-Amerika, publicirt in Los Angeles, Cal., jeden Samstag.

J. P. Goytino, Redacteur,
330 New High Str.

ESKUAL-HERRIA.

California-ko eta Estado-etako Eskualdunen Berriketaria

J. P. GOYTINO ..... EGITLEA.

330 New High street—Los Angeles, Cal.

PAPER HUNEN PREGIOA

Ameriketan

$2.00 ..... Urtheko

$1.00 ..... Hirur Hilabetheetako

Frantzian

15 Libera urtheko.

Hasteran pagatzen da.

RED STAR LINE

(*Ivar Guerin*)

New York-etik Anvers-erat yohan diren bapurrak.

Atheratzea New York etik astearken guziez.

Agente nausia: Los Angeles-etan.

J. P. Goytino,
330 New High karrika.

COMPAGNIE GENERALE TRANSATLANTIQUE.

New York-etik Havre-rat yohan diren bapurrak.

Atheratzen dire New York-etik eta Havre-etik larumbate guziez.

Agente Nausia: Los Angeles-etan.

J. P. Goytino,
330 New High karrika.

Compagnie Bordelaise.

New York-etik Bordalerat yohan diren bapurrak.

Agento nausia Californian:

J. P. Goytino,
330 New High karrika,
Los Angeles, Cal.

GOAZIN AMERIKETARA!

(HAN LEHEN EGITERA.)

1. Mila zortzi ehun eta berrogei eta bigarrena,
Uztailaren hilebetearen hamaseigarren eguna;
Kantu berri charmagarri hauek oman nituena,
Suiet bat errekontraturik zitzkien oderrena.

2. Suiet bat ederra zela guzuada egia,
Inposible lizateke horren disimulatzia.
Malur horrek harriturentu España eta Frantzia,
Horrembertze pasayerekin galda izanden untzia.

3. Hauk ziren pena handiak erresuarik gabeak,
Herlotzen ikhusten eta ihesi ezin giak;
Han baziren gure yendiak aideak eta adiskideak,
Miserabljak itodira ayek eguin ditusten indiak,

4. Untzi artan haste hastik Bayonetik partitzetik,
Zer nahi sufritu dute guzien partetik,
Urrun beti plazaretik Montevideorat eltzetik
Negar eta egarraz partitu dire mundutik.

5. Senarra eta emaztea bere haurrekilan,
Guerlan aritu ezan dire horsoarkilan,
Azkenean ito dira oro elkarrekilan,
Hitasuaren kolerak yuanditu barrekilan.

6. Suietik aski badugu gure herten sartzeko,
Arima gaicho horien zerurat gomendatzeko,
Zer malurra horiendako exemplo bat guretako,
Biotzean sar balakigu mais yainkoaz oroitzeko.

7. Hikusi ginituenean Montevideoko leorrak,
Hantziren mundu untako plazer guzien ondarrak.
Handik gotti deadarrak nigarrak eta malurrak,
Mila puska egin tituen itsasuaren hindarrak.

8. Dusik ezta gizonen yakina
Guziek garaitzen ditu yainko yannaren doainak,
An hito dira gizonak kigerika zakitenak,
Bertze batzuek eskapatu batere etzakitenak.

9. Kapitunez kestione mintzo yendia,
Nik eztezakat yuya zeinok ikioten egia,
Ezta erremediorik engoitik ok juanak dira,
Afera ortan auziatan nior ezdakie bbia.

10. Untziaren kapitana zen gizon yakina,
Etzen kargu hartarako izan ezpalitz entzuna,
Ura here gu bezala eltzera mundura yina,
An hito diran guzientzat ura izan ahkau heguna.

11. Mundu huntan laur kanton bazter guzietan,
Berri hau hedaturenda ezta dudarikan,
Arribatzen denian Eskual Herrietan,
Aita amak urturendire nigar changrinetan.

12. Berreun eta hogei eta hamabi persona
Memento batez funditu dira oi zer bioz mina,
Zerura eginten zituzten marroska oiyu samina
Otoitzen zituztelarik Yainkoa eta Biryna,

13. Untzi artako presuna gaichoen gidaria,
Badakit nongo seme zen passerketaria,
Ofizio miserablia zuen ene bidurian,
Bere passayer guziekin zerizan dago egian.

14. Urrikalzeko dira pasayer ketariak,
Heldu zaizten urteak baino juandirenak hobiak,
Letra letraren gainean igorri beardira,
Frantzian lurrik duena esfadin unat abia.

15. Frantziatik yin ginen zer nai den gostarik,
Ginituen erresuza guziek chanturik,
Montevideon gira oral changrines aberastturik,
Eskual herriaz orotzean nigarretan urturik.

16. Amasei garren bersu oral mua sartzera,
Suieta franko banuke bainan priasatzen naiz finitzera
Montevideorat yin nintzen kantu hauen moldatzera,
Ojala juan banendadi Bayonara kantatzera.

ARTZAINAK.

Alfer omena dute artzain gehienek;
Barkhatuko daukute Californikoek.
Hekien bidea guti hartzen Laphurtarrek,
Asmu bera balute Eskualdun guziek!
Herritar deus ez denak, herria hustuten;
Aski alferra bada, gordeko baderen.

Bere etzaia dute neguko otsoa,
Hotzez bezenbat goez, zabala aloa.
Ardi zembait zirindu yaten acherisk,
Bainan hainitz hobeak zaizko oliekiak;
Arrano erregea yausten da mendi-tik,
Haragia beleak usuatu ordutik.

Artzainek badute lan bildotsak sortzean,
Nola negua bada here borthitzean;
Bainan ere badute dembora udako,
Ezditutzenak yunek betiri beretako.
Huna zer zuen batek nigarrez aithortu,
Artzaingoa utzerdi zenean lerratu:

"Ene antchu gacheak behar ditut utzi;
Badire erotarat ehun eta zortzi;
Hora gaizoa sarri ez dut ikhusiren;
Kaikurat gehiago sano ez deitziren.

"Itzalean ardura, haizea ferekan,
Bortz lo eginik nago sorropil puntokan;
Bizia naramokan nibongo aisenik,
Ez du Napoleonek holako egunik.

"Ihi zelhairat ginen zazpi zortzi biltzen,
Bi soo yokan emanik ederki yorratzen;
LABRUN paretan alha zirela ardiak,
Gure begien bichtan ageri guziak.

"Unhatzean pilotan, harroka gainetik
Beira emaiten ginen, ederren aldetik:
Begietan gituen Laphurdi guzia,
Linho landa iduri itasaso garbia.

"Sobra fresko zenean neguko haizea,
Errech zen bertze alde urrats egitea,
Ikhus eko hedatzen, ehun haranetan,
Españiako herri yauntziak beltzetan.

"Oihartzunak etziren oren bat ichiltzen;
Gure irrintzirinek zituzten harroztzen;
Menta zuen chirolak; menditik mendirat,
Egortzen ziren kantak lagun beharrirat.

"Taloa eta gasna, marrakuku gaiak,
Sendatzen dituzteriak sabeleko baiak,
Etchela alhazean eziren eskasten;
Denei baino hobeki indar zarieten.

"Ithurri ederretan, ur garbi edari;
Ez baitu buru minik ematen nehori;
Airetan garbiena, bulharren hazteko;
Bethi barnea ungi, denaren yateko.

"Aita, ama, haurridek, guzia dozena
Serres-en daramate bizi arraina;
Diru guti sakelan, bainan nihoiz eri,
Inbidiarik gabe nihoren onari.

"Aztean behin gasna ekhartzen nioten;
Hek asteko irina zautedan ematen;
Partiada guziez amak zioela,
Lagun tzar orotarik beira nindadila."

Eskual-Herriko Berriak.

Adiehkide batek igorri gaitu letra eder hau uztailaren San egina:

M. Carnot-en erhortzeaz.

Egun zortzi izan da enterramendu miragarri hori. Erran ditake mundiak ez duela egundaino asmatu ahurkia horren parerik. Zer konteolamendua albarguntsa, erresetagarri, seme-alhaba nigarretan zaude ni hentzat, ikhustea edo sendituzen gorphutz hilaren ingurunetan, Frantzia guztik, Europako erresuma gehienetarik yinikako billiar, igorriak izan diren dolumenezko khorona eta letra ezinago hunkigarriak!

Eskual-Herriak, bethi bezela, etchiki du bere erronka, agendura miragarri hortan. Ezik, ikhusi dire, eta ongi ezagutuak ero izan, eroron artean, Baionako, Hendaiako eta Ahazparneko hirien izenean. Lafont eta Harriague deputatuek ofreitu dituzten khorona ederrak.

Dudarik gabe da, bazela gure eskualdetarik igorrikako bertze hainitz khorona; bainan ezin denak izendatuje, botan geldituzen gira.

Bertzalde, ehortzeta edo hiltze izigarri herren oboretan, yadanik eginak izan dire, Baionako yaun Aphezpikuaren manuz, hilen otoitzak elisa gehienetan.

Bizkitartean, beltre, oraine ere, hor han, ordu on batku; edo ezin bertzez gibelerat daudenak. Esperantza dugu egun daitekela hon aldia; eta Eskual-Herri guziau, Frantziako bertze lokietan bezela, arima eli guziek nahiko dutela otoitz egin munduan izan den gizon erresetegarri, ohorzgarri-aren fagoretan dolumenetan.

Yudues, Protestanten elisetan, bilkhuretan, otoitz berak, galde berak eginak izan dire khursu handienarekin. Eta zeremonia hunkigarri hotan, denek galdegin dituzte Jaun-Goikoari, aezutikako dohalnak, ez bakharrik. Frantziarentzat, baina noraino hain garrazki zafratua izan den Errepublikako President zenaren familiaren fagoretan.

Eskualdunen Etchea.

208 5th karrika, San Franciscon.

Angel Arenburu, Nausia.

Sakualdunen bilkhura — Etche ederra. Ospitale frantsesaren ondoan.

--PREZIO TTIPIAK.--

California-ko Eskual Herria, 1894-VII-28

Euskera. 2010, 55, 3. 1253-1326. Bilbo
ISSN 0210-1564

V

MARI[74]

1. Aspaldi ontan egun eta gau zitzaidan biotza ari,
kanta nezala nola bizita eta il izan zan Mari,
egiyaz gizontasunak asko zor diyolako berari,
lan au bearra dala sinistu eta asten naiz kantari.

2. Itsaso zabal urdin ederra, goia dezula musutzen,
umil ikusten zaitugu iñoiz bañan gaituzu izutzen.
Zergatik zera berdeturikan denakin burruka jartzen?
Ez dakigu guk zerengatikan zeran orrela zakartzen.

3. Nork esan eder zauden denboran, jarririk zuri begira,
golpez artuko dezula gero ikusten zaizun mugira?
Arraiketari txalupak ezin jira dirala errira,
zuk jo ta mila puska egiten frankotan ikusten dira.

4. Puskak jostailu gisan botaka dabiltzanean aidean,
gizon tristeak azaltzen dira, puskeriyaren gainean.
Bainan, o!, gero zer pasatzen da? Zer gertatutzen zaie an?
Aundiyagoko golpeak jo ta gordetzen ditu urpean.

5. Begira zagun orain portura ia zer dan an gertatzen
amak, emazte eta semeak denak an dira juntatzen;
eta galdutzen dabiltzanaren berririk bada etortzen,
biotzak penaz erdiraturik negarrez dirade jartzen.

6. O Mari leial, on biotz utsa, aien malkoak txukatzen
zenbait alditan saiatzen zinan gustoz zinala nekatzen;
aitu ordukoz txalupak nola zebiltzan kanpoan galtzen,
il edo bizi joanda zinduzen ango gizonak ekartzen.

---

[74] Ramón Artola, «Jose Maria Zubia, Mari zeritzon gizon onoretsuaren oroitzan kantatxoa», *Sagardoaren graziya* II, Ed. A. Zavala, Auspoa 2003, 97-99.

7. Zure biotza maiz aza1tzen zan iruki arren gordean,
zenak bulkarik gorputza jarri eraitu zizun lanean;
non zan estura-aldi gogor bat eta beti zu zinan an,
anaia maite asko salbatu oi zinduben urganean.

8. Zenbait onlako eginbide on gertatu oi zan zugandik,
beragatikan zure oroitzik ez da galdutzen gugandik
zu ito arren zuk salbatubak bizi dirade oraindik,
zere bizitza eman zenduben aurkezten mesede aundik.

9. Gisa onetan bizi zinala ailegatu zan eguna,
o zein tristea, geroztik ongi denok gogoan deguna;
au zan txalupak galdu zirana, aizetsu oso iluna,
ango gizonak salbatzen zere biziya galdu zenduna.

10. Aiek azkentzen zeuden denboran ezin ibiliz igari,
azaldu ziran beren laguntzan beste txalupa aundi bi.
Zein zan aurretik ur mendi tontor aien gainetan giari?
Andik minutu gutxira beren azpiyan ito zan Mari.

11. Nora zijoan goi-biak joaz ur mendi aiek barrena?
Zer zan zeraman ibilbidea? Zer pentsamentu arrena?
Besterikan ez: penatuetaz kupiturikan barrena,
esturan ziran lekura bera, irixtekoa aurrena.

12. Itxaso golpe izugarri bat jaikirik beren gainera,
aurretik zana urez bete ta; joana izan zan gainbera;
eta ondotik zanak lagunak zitubelarik atera,
non zan geiago ikusi gabe itoa izan zan bera.

13. Bere anaiak salbatu naian galtzen dubenak biziya,
ordu beretik gaude daukala zeruba irabaziya;
onen erdiyan azalduko da omen ederrez jantziya,
gozatutzeko egin izandu zituben lanen sariya.

14. Lur ontan ere oroitza bada, ez da ontaz zer esanik,
bere itxura altxa zitzaion otailutxo bat eginik;
ontaz gain koroi berri bat kantuz uztaitzen diyot nik,
zeren koroitu gabe ez deiken utzi alako gizonik[75].

Donostiako moilean Mari-ren omenez eraikitako monumentua (1866)

[75] Hona dioena Donostiako Portuan eraikitako eskulturaren testuak:

URRIKALDUAK SALBATU NAYAZ EMAN ZENDUBEN BIZIYA,
TA GAUR DAUKAZU, GOITALCHATUAZ OBIZ ITSASO AUNDIYA:
¡LO EGIN ZAZU BAGA ZOÑUAZ.... O GIZON MAITAGARRIYA!
ONRATURIKAN ZURE GLORIYAZ DONOSTI ETA KANTAURIYA.

VI

SAINT-PAULGO GIZAJALEAK[76]

Manamenduen airian



1. Bordeletik joan ginen[77] uraren[78] gainean
   Saint-Paul izena zuen untzi ederrean,
   Heurtin[79] kapitaina zen gurekin batean,
   Calcotan arribatu osasun onean.

2. Gure jaun kapitaina han zaugun eritu
   Sukar batek baitzuen lanjeroski hartu,
   Noiz ere baitzen aphur bat sendatu,
   Marseillako alderat ginen abiatu.

3. Hazilaren hogoia partitu ginena,
   Astizkena baitzuen egun hark izena,
   Itsaso zabalean baikinuen lana,
   Orduan hautsi zaukun untziaren lema.

---

[76] Kantu Berria, 1868. *Un horrible repas*. Bayonne, Imprimerie, E. Lasserre, Ru Orbe 20. BNF, Z Basque nº 905.

[77] *Bordeletik joan ginen* da Azkuek eman zion titulua. Nº 621.

[78] Orijinalean oker: *lurraren gainean*.

[79] *Heurtin* Azkueren bertsioan *Erten* bilakatu da.

4. Abendoaren seian kaloba trenkatu[80],
Eta untziaz laster bide makur hartu,
Ahal nola baitugu geroztik gidatu
Aitzeak ez baigaitu hainitzik lagundu.

5. Sekulan orhoitzeko Eguberri eguna
Hartan galdu ginuen gure etxe ona,
Ihurtziri, tenpesta, aize fanfarona,
Bela masta guziak hautsi daukiguna.

6. Laster eman ginuen hurerat xalanta[81],
Eta ordu berean harekin kanota,
Uretarat jautsi ginen guziak saltoka,
Herioari buruz hartzera borroka.

7. Jan behar zen batailaz ginen okupatu,
Hamar kilo bizkotxa baikintuen hartu,
Baril tipi batean ura konserbatu,
Haiekin zortzi egun ditugu pasatu.

8. Orduan hil zitzaukun libren kapitaina,
Ez baitzuen gutitu gure bihotz mina,
Othoizten zuelarik, oi Ama Birjina.
Haren gomendiorat utzi du krima.

9. Hamasei lagunetzat, oi zer errepaxa,
Lau pinta uretan kilo bat bizkotxa,
Bakar orrend<…> en ogitik bi matsa,
Ez zen hanitz a <ska>rtu ez gure gorputza.

10. Oro akabatuak ez jakin zer egin,
Zorte egin ginuen zoin behar ginen hil,
Hartarat erori zen Julien Girardin,
Bera presentatu zen bihotz onarekin.

---

80 *Kaloba trenkatu*, lema hautsi.

81 *Xalanta* < chaland, fr. < khelandion gr., batela.

11. Odola baikinion orok hurrupatu,
Bai eta haragia parte gontsomitu
Oro jan gabetarik leihorra agertu,
Bathanboka lurrean dugu enterratu.

12. Eskerrak bihurtzen Birjina Maria,
Itsasoko izarra gure gidaria,
Gutaz othoiztu duzu seme jaun handia,
Ardietsi daukutzu miserikordia.

13. Goraki laudatzen dut zeru lurren Jauna,
Zeren gidatu nauen leihorra huna,
Zu gabe deus ez gira orok dakiguna,
Ori izan dezaket ene ama ona.

14. Galdatzera juan nintzan erriko etxera
Ene ama maitia nun bizi othe da,
Besoak zabaldurik jalkitzen zen bidera,
Berriz ez haut utziko itsasoz juaitera.

15. Zaharren abisuez ez dena behatzen,
Mundu huntan guti da uros atheratzen,
Exenplua ni baithan duzue ikhusten,
Egier ez behatuz nola galtzer naizen.

16. Errespeta ditzagun aita eta ama,
Haurrendago baitute amodioa ona,
Herrian xerkaturik bizitzeko lana,
Ahala bezenbat lagun zahartzetik barna.



Saint Paul itsasuntziak eginiko azken arruta

CANTU BERRIA

Manamenduen airean. — 1868

I.

Bordeletic yoan guinen burraren gainean
Saint-Paul icena çuen untçi ederrean
Heurtin capitaina cen guretzin batean
Calcotan arribatu osasun onean.

II.

Gure yaun capitaina han çaugun eritu
Sucar batec baitçuen lanyerozki hartu,
Noiz ere baicen aphurbat sendatu
Marzellaico alderat guinen abiatu.

III.

Hacilaren hogoya partitu guinena
Astiskena baiçuen egun harc icena
Itxaso çabalean baikinuen lana
Orduan hausi çaukun untciaren lema.

IV.

Abendoaren seian caloba trencatu
Eta untciac laster bide makur hartu
Ahal nola baitugu guerostic guidatu
Aitceac ez baigaitu hainitcic lagundu.

V.

Seculan orhoitceco Eguberri eguna
Hartan galdu guinuen gure etche ona
Ihurtciri tempesta aitce fanfarona
Bela masto guciac hautci daukiguna.

VI.

Later eman guinuen hurerat chalanta
Eta ordu berean harekin canota
Ibetarat yauxi guinen guciac saltoka
Herioari buruz lartcera borroca.

VII.

Yan behar cen bataillas guinen ocupatu
Hamar kilo bizcocha baikintuen, hartu
Baril ttipi batean ura conserbatu
Heyekin çortci egun ditugu pasatu

VIII.

Orduan hil citciçaukun libren capitaina
Ez baitçuen gutitu gure bihotz mina
Othoitzten çuelaric oi Ama Birgina.
Haren gomendiorat uztci du arima.

— 8 —

IX.

Hamasei lagunetçat, oi cer errepacha
Lau pinta ure[illegible]an kilo bat bizkocha
Bakarorren[illegible]az [illegible]en oguitic bi matsa
Etcen hanitz a[illegible]rtu ez gure gorputça.

X.

Oro akabatuac [illegible]z yakin cer eguin
Çorte eguin [illegible]uen coin behar guinen hil
Hartarat eroritcen Julien Girardin
Bera presentatut[illegible]en bihotz onarekin.

XI.

Odola baikinion oroc hurrupatu
Bai eta haragia parte gonsomitu
Oro yan gabetaric leihorra aguertu
Bathamboca lurrean dugu enterratu.

XII.

Ezkerrac bihurtcen Birgina Maria
Itxasoco içarra gure guidaria
Gutaz othoiztu ducu Seme yaun handia
Ardiertxi daucutçu misericordia

XIII.

Goraki laudatcen dut ceru lurren Yauna
Ceren gin[illegible]atu nan[illegible] leihorra luna
Çugabe deuz ez guira oroc dakiguna
Orai ikus deçaket ene ama ona.

XIV.

Galdatcera yuan nintçan errico etchera
Ene ama maitea nun bitci othe da
Besoaa çabalduric yalkitcen cen bidera
Berriz ez haut utzico itxasos yuaitera.

XV.

Çaharren abisuez ez dena behatcen
Mundu huntan guti da uroz athoratcen
Exemplua ni baithan duçue ikhusten
Eguier ez behatuz nola galtcer naitcen

XVI.

Errespeta ditçagun aita eta ama
Haurren dago baitute amodioa ona
Herrian chercaturic bitciceco lana
Ahal becembat lagun çahartcetic barna.

FIN.

Bayonne, imprimerie E. LASSERRE, rue Orbe, 20.

Baionan E. Lasserre-ren moldiztegian inprimaturiko bertsoen faksimilea (1868)
BNF, Z basque, nº 905

VII

VILLE DU HAVRE-REN HONDORATZEA[82]

Lau ponduko airia



1. Untzi bat galdu zauku itsaso handian,
   Berrehun bat pasajers juan da barnian[83],
   Heiagora[84], marraska bazen han ordian,
   Jaunari gomendatuz azken orenian.

2. Frantzesa zen untzia Montobidoetan,
   Komersan zabilana zonbeit urthe huntan,

---

[82] 1876. M Fiche BNF, YO-2. *COMPLAINTE sur l'épouvantable naufrage de la «Ville du Havre», Le navire français percé par le navire anglais… 226 passayers ithoric…*

[83] Donostia 1007, *baziren barnian*; Donostia 1008, *juan tzen barnian*.

[84] Donostia 1007, 1008: *Heien gora*.

Errekontru gaistua izan da heietan,
Erremarka bazuten hirur egun hartan.

3. Montobidoetarik lau egun orduko,
Abisa ukhan faltaz etziren galtzeko,
Odei bat jelgi zaie bistaren galtzeko,
Urak iretsi ditu argitu deneko.

4. Gerlako untzi handi angles batendako,
Malurra ukhan dute elgarren joiteko,
Azken oren tristia, haren emandako,
Othoitz egin dezagun gure arimendako.

5. Hirurehun pasajers, gehienak galdu,
Lauetan hogoieta bederatzi salbu,
Noiz eta direnian leihorrerat heldu,
Ama birjinak ditu bere haurrak bildu.

6. Untziko kapitaina oihuka hasi zen,
Jenden kontserbatzeko baxetak non ziren[85]?
Hiruretarik biga hautsiak baitziren,
Ororen salbateko bat baizikan etzen[86].

7. Nigarrez juan dira othoitz egitera,
Ama zu heldu zira arimen bidera,
Harriturik jarri da itsasoa bera
Nolakoa izanen dea jainkuaren kolera.

8. Ameriketan zer da? Urhia metaka,
Irabaziak altxa khondiak egin eta
Beren ustez juanak fortunaren xerkha,
Anhitzak han dabiltza eske borthaz bortha!

---

[85] Donostia 1007, Jende hoikien salbatzeko batxerak bon ziren; Donostia 1008, Jende hoien salbatzeko baxetak non ziren.

[86] Donostia 1007; jende oikien dalbatzeko bat baizik han etzen; Donostia 1008, jende hoien salbatzeko batbaizik han etzen.

9. Sorthu orduko haurrak, oro Amerika,
Fin hunaren egiteko xedia gal eta
Aberasten balira zuzenaren kontra,
Anhitzak heldu dira bertzenaz har eta.

10. Frantziako haurretan badut konfidantza,
Ameriketara alde ez gitela mintza.
Hemen trabaila giten manera hon gisa,
Zuzenian behar da gozatu intresa.

11. Bakotxak bere lurra ez du behar utzi,
Bertzela izanen da etsaia nagusi,
Diela zenbeit urte baitugu ikhusi,
Gu Ameriketan, soldado ihesi!!

12. Hementik juaiten dira ontsa direlarik,
Aita-ama maitiak etxian utzirik,
Menturaz gehiago hetaz ez khasurik
Zahartzen direnian ez dute jaberik.

COMPLAINTE

Sur l'épouvantable naufrage de la « Ville du Havre »

Le navire français percé par le navire anglais

226 PASSAYERS ITHORIC

LAU PENDUCO AIRIA

1

Untci bat galdu çaüku itssasso handian
Berchun bat passayers yuan du baraian
Heyagora, marraska, bacen han ordian;
Yaünari gomendatas, asken orenian.

2

Francessa cen untcia Montobidoetan,
Comersan çabilana, combeit arthe huntan;
Errekontru gaïstua içan da heyetan
Erremarka baçuten hirour egun hartan.

3

Montobidoetaric, laü egun orduco
Abisa ukhau faltaz eteiren galtceco
Odey bat yelgui çaye bistaren galtceco
Ourac iretci ditu arguitu deneco

4

Guerlaco untci handi Anglez baten daco
Malurra ukhan dute elgarren yoïteco
Asken oren tristia, harec eman daco
Othoïtz eguin deçagun, gue arimen daco

5

Hirour ehun passayers, guehienac galdu
Laü etan hogoyeta bederatci salbu,
Noïz eta direnian leyhorrerat heldu
Ama birginac ditu bere haürrac bildu

6

Untcico capitaïna oihuca hassi cen
Yenden conserbatceco bachetac non ciren?
Hirour etaric biga haütciac haïtciren
Ororen salbatecco bat bakeikan etcen

7

Nigarrez yuan dira othoïtz eguitera
Ama çu heldu cira arimen bidera
Harrituric yarrida Itssassoa bera
Nolakoa içanen den yaïnkuaren coléra

8

« Ameriketan cerda? urhia metaka
« Irabaciac altcha khondiac eguin eta
« Beren ustez yuanac fortunaren cherkha
« Anhitcac han dabiltca eske borthaz bortha! »

9.

« Sorthu orduco haürrac, oro Amerika,
« Fin hounaren eguiteco cheelia gal eta
« Aberasten badira çucenaren contra
« Anhitçac heldu dira bertcenac hiar eta »

10.

« Franciaco haürretan badut confidantça
« Amerikaren alde ez guitela mintça.
« Hemen trabaila guiten manera hon guisa
« Çucenian beharda goçatu intressa »

11.

Bakotchac bere hurra ez du behar utci
Bertcela içanen da Etçaya naguci
Diela cembeit ourthe haïtugu ikhuci
Gu Ameriketan, soldado ihessi !!!

12.

Hementic yuaïten dira, ontça direlaric
Aita-ama maïtiac etchian utciric
Menturaz guehiago hetaz ez khassuric
Çahartcen direnian ez dute yaberic.

JEAN ETCHEPARE.

Ces deux chants plaintifs étant la propriété de Jean Etchepare, tout contrefacteur sera poursuivi selon la rigueur des lois.

Imprimerie Nouvelle. — 7, place des Écoles, à Pau.

Pariseko Liburutegi Nazionaleko bertso papera. (BNF, YO-2)

VIII

KARMENZITAREN ERRESKATEA[87]

1. Kantatu nai det orain asiyo eder bat,
Emen pasatu dana gu danaren bistan,
Jakin nai badezute ote dan egiya,
Erozeini galdetu besterikan ez da.

2. Emengo denboralak, emengo itsasoak,
Borraska desegina eta aize fuerteak
Mundu guztiya zeukan ikaraturikan,
April onen amalaugarren egunean.

3. Iru barku ageri ziran emen Kontxan,
Bi ziran espainolak, bestia inglesa,
Mary Lawson zan au ta bestia Eulalia,
Irugarrena esana berriz Karmenzita.

4. Goizeko zazpiyetan goleta inglesa,
Amarrak faltatu ta juan zan ondarrera.
Tripulaziyoko bi gizon ito ziran,
Beste iru berriz larri ibilitu ziran.

5. Karabinero emengo ontziyan zeguen bat
Gizarajua ito zan bere eginearrean.
Jende guztiyen bistan, antxe mila puxka,
Ordu erdien batian egin zan ontziya.

6. Korbeta Eulaliako tripulaziyua
Karmenzitara pasa zan ura ikusita.
Zergatikan seguru kontatzen etzan an,
Eta ondarrera joan ote zan bildur zan.

7. Ikusi zan denboraz oien arrazoia,
Eta orri meriyo diyote biziya.

---

[87] KM, Kulturunea, 52649.

Bara ordu baterako asi zan ontziya
Faltatubaz amarrak juaten ondarrera.

8. Mundu guztiya zegon Karmenzitai beira,
Noiz eramango zuen uraren ondarrera,
Auxen dek, au pena! Auxen dek negarra!
Ogeien bat marinel itoko ote dira!

9. Ordu bat pasatzen zan, gero beste ordu bat,
Geruako ta gero txarrago itxasua,
Mundu guztiya zeguen penaz beterikan,
Peligruan gizonak ala ikusita!

10. Noizbait ere kayian seietakuartan
Amabi gizon prestu danak Debakuak
Artzen dute treinera beren kontukua,
Eta ateratzera preparatzen dira.

11. Artu zuten treinera aiek ROMANITA,
Eta bere patroia PEDRO KOROSTOLA,
Arrekin bederatzi bere marinelak,
Beste bostbat gainera agregatu ziran.

12. SANTIAGO KOROSTOLA, LORENZO LEKUONA,
JOSE MARIA EGIA TA TOMAS GALDONA,
ANGEL EMAZABEL, ALBERTO OZA eta
ISAAK BERASATEGI ta bi ESNAOLAK.

13. FRANTZISKO ANDONEGI, kapitan prestuba,
ta SALBADOR EGIA, onen marinela.
EUSTAKIO IBARGUREN, aure kapitana,
Eta EGAÑA anaiak, abek zumaitarrak.

14. Amabostak treineran presto sartzen dira,
Eta agudo kaietik ateratzen dira,
Mundu guztiya ayeri zeguen begira
Ta gutxi ero geiago, danok bildur ziran.

15. Bainan aiek agudo, marinel prestubak,
Naiz itxasua egon txarra ta aizetuba,
Agudo KARMENZITAN plantatu baitziran,
Peligruak, baliente, desafiyatubaz.

16. Ordu laurden bat baino lenago kayian,
Ogei gizon salbatu ta plantatu ziran,
Donostiako errian orlako asiyua
Inork aztuko eztu urte batzubetan.

17. Bien, mutilak, baliente, orla portatubaz,
beti izango zerazte kontsideratubak,
Et'inork premiyorik naiz zuberi ez eman,
Orrengatik, mutilak, ajolik ez izan.

18. Premiyorik onena da kontzientziya,
Beti kontentu da ondo egiten dubena,
Ta nere partetikan zuben alabantzan,
Orra zuben izenak moldezko letretan.

VERSO BERRIAC.

ASIYO ONBATEN ALABANTSAN.

1
Cantatu nai det orain
asiyo eder bat
emen pasatudana
gu danaren vistan,
Jaquin nai badezute
otedon eguiya,
eroceñi galdetu,
bestericaa ezdà.

2
Emengo demboralac,
emengo itzasoac,
borrasca deseguiña
eta aise fuerteac,
mundu gustiya seucan
icaraturican,
aprill onen amalau
garren egunean.

3
Iru barcu agueri
siran emen Conchan,
bì siran españolac,
bestia inglesá,
Mary Lawson san au ta,
bestia *Eulaliá*,
irugarrena esana,
berris *Carmencilá*.

4
Goiseco saspiyetan,
goleta inglesá,
amarrac faltatu ta
juantsan ondarrerà;
Tripulasiyoco bì
guison itosirán
beste iru berris larri
ibillitusirán.

5
Carabinero emengo
onciyan seguen bat
guisarajua itozan
Bere eguin bearrean.
Gende gustiyen bistan
anchen milla puscà
ordu erdi en batian
eguinsan onciya.

6
Corbeta *Eulalia co*
tripulaciyuá
Carmencilara pasa
san ura icusitá,
sergatican seguru
contatsen ezan an,
eta ondarrera juango
otesan bildur zan.

7
Icusisan demboras
oyen arrazoya,
eta orri meriyo
diyote bisiyá,
bara ordubateraco,
asisan ontziyà
faltatubaz amarrac
juaten ondarrera.

8
Mundu gustiya segon
Carmencilai beirá,
nois eramangosuben
urare ondarrerà,
¡Auzendec, au pena,!
¡au zendec negarra!
oguein ebat mariñel
itoco otedirá!

9
Ordubat pasatsensan,
guero beste ordubat,
gueruaco ta guero
charrago itsaua,
mundu gustiya següen,
penas beterican;
peligruan guisonac
ala icusita!

10
Noisbat ere cayian,
seyetacuartan,
amabi guison prestu,
danac Devacuac,
artzendute treñera,
beren contucua
eta eteratsera
preparatzendira.

11
Artusuten treñera,
ayec ROMANITA
eta bere patroya,
PEDRO COROSTOLA,
arrequin bederatsi
bere mariñelac,
beste bostbat gañera
agregatu siran.

12
SANTIAGO COROSTOLA,
LORENZO LECUONA,
JOSÉ MARÍA EGUÍA,
ta TOMÁS GALDONA,
ANGEL EMAZABEL,
ALBERTO OZA, eta
ISAAC BERASATEGUI
ta bi ESNAOLAC. (1)

13
FRANCISCO ANDONEGUI
Capitan prestuba, (2)
ta SALVADOR EGUIA
onen mariñelá;
EUSTAQUIO IBARGUREN
aure capitana, (3)
eta EGAÑA anayac, (4)
abec Zumaytarrac.

14
Amabostac treñeran
presto sartsendirà,
eta agudo cayetic
eterastzendirà,
Mundu gustiya ayegui,
zegüen beguirà,
ta guchi ero gueyago
danoc bildur ziran.

15
Bañan ayec agudo,
mariñel prestubac,
nais itsasua egon
charrà ta aisetuba,
agudo CARMENCITÁN
plantatu baiciran,
peligruac, valiente,
desafiyatubaz

16
Ordulaurden bat baño
lenago cayian,
oguei guison salvatu
ta plantatusiran,
Donostiaco erriyan
Orlaco asiyua,
Iñorc astuco ezdu
Urtè batsubetan.

17
Bien, mutillac, valiente,
Orla portatubaz
Beti isan goseraste
Consideratubac,
Et iñorc premiyoric
Naiz suberi ezman,
Orrengatic, mutillac,
Ez ajolic izan.

18
Premiyoric onena
da concienciya
beti contentu da, ondo
eguiten dubena;
Ta nere partetican
zuben alabantzan
orra suben isenac
moldezco letretan.

(1) *José* eta *Juan José*.
(2) Quechemarin *Industrialecua*, Devacua.
(3) *San Luis Gonzagacua*, Zumayatarra.
(4) *José María* ta *Pedro Cayetano*.

Donostiyan Aprillaren amazaspigarren egunean, milla ta zortzireun irurogueita amalauco urtean.
(*Es propiedad.*)

San Sebastian: Imp. de Juan Osés, plaza de la Constitucion, 7.

Donostia, Juan Oses, 1874-IV-17

IX

JONAS ETA ANA[88]

1. Itxas eskina bitan Jonas eta Ana
izan zan denbora bat bizitzen zirana;
arratsetan arturik txalupatxo bana,
itxasoan juntatzen ziran alkargana.

2. Gau ilunetan alkar bilatzeko giyak
zituzten txalupetan nork beren argiyak;
zeru alaia bazan, berriz, ilargiyak
zituben alkargana giyatutzen biyak.

3. Alkarren amoriyoz itxutubak oso,
egunak pasatutzen zituzten penoso;
arratsak, berriz, biyotz zeuzkatenak preso,
librean ipinirik, maitaro ta gozo.

4. Modu ontan zirala urte bat osoan,
eriotzak atzitu zituan lazoan;
bein egon ondorean izketa gozoan,
eskutatubak izan ziran itxasoan.

5. Denborak emanikan uste gabe mura,
txalupetara sartu zitzaioten ura;
irten bainan len biyak leku segurura,
alkarrekin itota joan ziran zerura.

[88] Ramon Artola, aip. lib., 72.

X

BERTSO BERRIAK MIKAELA ZARRANAK[89]

1. Bertso berri batzuek ditut aterako
Apaiztegui jaunaren barku ontarako;
Zeren badaukazkigun motiborik asko,
Jendeak pasatu du miseria franko.

2. Kantatu naiagatik gogoa non dago
Atzo indar gitxi ta egun gitxiago.
Zutik ezin egonik jende asko dago,
Ezurrak jasotzeko nai ainbat lan dago.

3. Pasadizoak ongi deklaratutzeko,
Abantea baneuka esplikatutzeko,
Indarrak juan eta memoria flako,
Kartzelakoen gisa sufritu bearko.

4. Barkurako jendea biltzen duanean,
Agintzeak aundiak beren mingainean,
Indarrik ezin egin uraren gainean,
Jendea martxatu da miseria aundian.

5. Gizakumeak ere nai ainbat lanekin,
Galtzak ezin eduki gerrin uhalakin,
Jikara bana haba galleta urdinakin,
Nor egon bizirikan orien janakin?

6. Pasaian irten eta egun gutxin barrun,
Zorriak an zebiltzen ontzien ingurun,
Gutxienaz baginen bosteun bat lagun,
Orra zer gobernua Apaiztegin barkun.

7. Nafarreria ere sartu zan barkura,
Orduan artu zuen jendeak tristura
Iru il ziran eta artu ta putzura,
Eriotza zor degu jaioak mundura.

---

[89] BNF, Z basque 27.

8. Iru lagun il ziran beste zazpi eri
Ave Maria bezela egia da ori.
Biotzetik eskatu Birjina Amari,
Erremedio oberik ez da emen agiri.

9. Kuartilu bana ardu zuten agindue,
Pozik erango gendun eman baligue,
Beren itzen erdirik kunplitu ez due,
Barku ontako jendea joan da saldue.

10. Emengo miseriak ongi agertzeko,
Eun ta larogei bertso ez lirake asko
Baina bastante dira entenditutzeko
Poliki asi ginan ilaren ontarako.

11. Bagendun txokolate, kafe ta azukrea,
Premian estaltzeko nezesidadea,
Egiten utzi nai ez, miseri tristea!
Lagun zaiguan arren Birjina maitea.

12. Kozineroa gendun ona ta leiala,
Bizirik egoteko bagendun bearra,
Berak jan ta eran egin, besteari farra,
Frantses bizargorri, dana gizatxarra.

13. Kozinero ori da txit gizon prestua,
Barku ontako jendeak dauka ezagutua,
Alarguna omen da edadez zartua,
Zazpi dozena ez da dana txalkortua.

14. Kozineroak badu bertso oien premia
Aspaldian ez dago gutxi merezia,
Pasajeroai burla nai duen guzia,
Baioneta dirudi dana puzunia.

15. Goizean gosaltzean sardin ustel zarra,
Biotza animatzeko ez da gauza txarra,
Barkuan sartutzean bagendun indarra,
Erdia balego orain ez litzake txarra.

16. Mikaela Zarranak kantuak paratu,
Barren ontako jendeak naute enkargatu,
Afizioa izan da nik ezin faltatu,
Orra amasei bertso nai duenak kantatu.



VERSO BERRIAC.

1

Verso berri batzuec
Ditut steraco
Apaizteguí jaunaren
Barcu ontaracc:
Ceren badaucazquigun
Motivoric asco,
Gendeac pasatu du
Miseria franco.

2

Cantatu nayagatic
Gogoa non dago
Atzo indar guichi ta
Egun guichiago :
Zutic eciñ egonic
Gende asco dago,
Ezurrac jasotzeco
Nay aimbat lan dago.

3

Pasadizoac ongui
Declaratutzeco
Avantea haneuca
Explicatutzeco:
Indartac juan eta
Memoria flaco,
Carcelacoen guisa
Sufritu bearco.

4

Barcuraco gendea
Biltzen dorncan
Aguintzrac aundiac
Beren mingañean.
Indarric eciñ eguiñ
Uraren gañean
Gendea marchatu da
Miseri aundian.

5

Guizacumeac ere
Nay aimbat lanequiñ
Galizac eciñ eduqui
Guerriñ ubalaquiñ :
Jicara bana haba
Galleta urdiñaquiñ
¿Nor egon vicirican
Orien janaqu ñ?

6

Pasayan irten eta
Egun guchi barrun
Zorriac an cebiltzen
Onteien ingurun :
Guchienaz baguiñen
Bosteun bat lagun,
Orra cer gobernaua
Apaizteguiñ barcun.

7

Nafarreria ere
Sartuzan bárcura ,
Orduan artu zuen
Gendeac tristura :
Iru iltziran eta
Artu ta putzura ,
Eriotza zor degu
Jayoac mundura.

8

Iru lagun iltziran
Beste zazpi eri ,
Ave Maria berela
Eguia da ori:
Biotzetic escatu
Virgiña Amari,
Erremedio oberic
Ez da emen aguiri.

9

Cuartillu bana ardo
Zuten aguindue,
Pozic erango guendun
Emaan baligüe:
Beren itzen erdiric
Cumplitu ez due
Barcu ontaco gendea
Joan da saldue.

10

Emengo miseriac
Ongui aguertzeco
Eun ta laroguei verso
Ez iraque asco.
Bañan bastante dira
Entendítutzeco
Poliqui asiguiñan
Baren ontaraco.

11

Baguendun chocolate
Café ta azucres,
Premian estaltzeco
Necesidadea :
Eguiten utzi nay ez
¡Miseri tristea!
Lagun zaiguzu arren
Virgiña maitea.

12

Cocineroa guendun
Ona ta leyale ,
Vicirie egoteco
Baguendun bearra :
Berac jan ta eran eguiñ
Besteari farra ,
Frances hizar-gorria
Dana guiza charra.

13

Cocinero ori da
Chit guizon prestua ,
Barcu ontaco gendeac
Dauca eragulua:
Alorguna omen da,
Edredz zartua
Zazpi docena ea da
Dana chalcortua.

14

Cocineroac badu
Verso oyen premia
Aspaldian ez dago
Guchi merecia :
Pasageroai burla
Nai duen gucia,
Bayonela dirudi
Dana puzunia.

15

Goicean gosaltzean
Sardiñ ustel zarra,
Biotza animatzeco
Ez da gauza charra :
Barcuan sartutzean
Baguendun indarra,
Erdia balego oraiñ
Ez litzaque charra.

16

Micaela Zarranac
Cantuac paratu ,
Barren ontaco gendeac
Naute encargatu:
Aficioa izan da
Nic eciñ faltatu
Orra amasei verso
Nai duenac cantatu.

XI

KANTABRIAKO KOSTA ONETAN[90] (1878-IV-20)

1. Kantabriako kosta onetan gertatu diran kasuak
esan didate ager ditezen ipinitzeko bertsuak;
alborotatu eta galerak eman ditu itxasuak,
ango marinel gizaraxuak etzeuden portunosuak.

2. Desgraziarik orrelakorik sekulan ez da aditu,
itxaso ori asarretuta neurrian ezin kabitu;
nere kristauak, aiziak eta urak indarrak baditu,
aplakatutzen dan arte bera inork ezin errenditu.

3. Desgrazia au gertatua da Españiako partian,
esan diteke Donostiatik Santanderra bitartian
mila zortzireun irurogei ta emezortzigarren urtian;
baja aundia egina dago marinel oien artian.

4. Endemas ere Bizkaian dira, txit gaizki ibilituak,
Bermeon bertan larogei eta amabost beintzat ituak;
arrantzaleak famili asko mantentzen berak oituak,
konsideratu orain zer moduz dauden oiek geldituak.

5. Ito ainbeste itxasuan da gertatu dirade gaizki,
animak ere peligro aundin izango ziraden noski;
ala iduritzen, eta juzgatzen Jainkuak danak dakizki,
familiara pesalunbreak, or modu askok dakarzki.

6. Berrogei eta zazpi galduak Elantxobeko erritik,
ogei ta amabost Colindrestikan, amabost Santanderratik;
esan dedana, Kantabriako arrantzalien artetik
bestera joana badago franko aurten mundu onetatik.

---

[90] Antonio Zavala, aip. lib., 1978, 75-85.

7. Kosta onetan erri danetan izan dira seinaliak,
batzuek ito, besteak penaz bajatu arrantzaliak;
lana egin da gainerakuan dibersiyuan zaliak,
tristetu eta lutoz betiak, ezagun dute kaliak.

8. Lekeition da naiz Ondarruan, Motrikon da Donostian,
Alkortan ere aita-semiak, marinelik dan guztian;
gizarajuak txaluparekin olatuaren azpian,
konsideratu galerna orrek zenbat pena dakarzkian.

9. Ai, itxasora ez dadukagu edozein moduz juaterik,
an dabiltzanak jeneralian daude peligroz beterik;
egiten badu emen edo an modu ortako kalterik,
ez dauka inork alkateakin justizia egiterik.

10. Orain amabi urte omen zun piska bat alborotua,
ez jakin orain urrena berriz noizko daukan gorrotua;
ordu batian umil badago besterako asarretua,
izanagati estudiatua argan ezin fiatua.

11. Orain irureun urte omen zan gertaera au lenago,
bitarte ontan zenbait otz bero naski izandua dago;
ikusi zuanik gaur bizi danik munduan inor ez dago,
banan paperan ipini zuten, neroni leitua nago.

12. Marinel asko ito omen zan, besteak bildur da larri,
arrisko ortan berriz geiago ez omen zuten nai jarri;
gero arrairik ateratzen ez, kalean kosetxak urri,
Galiziatik arrantzaliak berriak ziran etorri.

13. Esplikatu det al dan moduan marinel oien bizitzan,
len eta gero galdu-gordean zer estadutan dabiltzan;
munduan danok bajuagua anparatuaz gabiltzan,
beste modutan egokiago ala baino ezin izan.

14. Famili asko bajatu dira marinel jende orrenak,
ume txikiak eta andreak gizona galdu zaienak;
jeneralian pobriak berriz orrelakuak geienak,
zer obra ona egingo duen zerbait laguntzen dienak.

15. Il diran oiek baldin mantxatik bazeukaten animetan,
eta arkitzen badira orain purgatorioko penetan,
oraziyo guk egin dezagun aientzat mundu onetan,
Jaun Dibinuak artu ditzala zeruko glori aietan.

XII

SAN JOSEREN HONDORATZEA[91]
1879-I-8

1. Kanta triste batzuek arrantzaliari
uste degu dirala jartzia komeni,
oiek daukaten bizi negargarriyari,
izan gaitezen danok oien errukari,
biyotzez eskatuaz jaungoiko jaunari.

2. Len ere izan dira probalidadiak,
zer modutan bizitzen diraden tristiak;
oien irabaziyak txit dira pobriak,
ez du beste errezorik emengo jendiak:
arren, salba ditzala Jaungoiko guriak

3. Ilbeltzaren eguna zortzigarrenian,
arrantzara atera ziraden goizian;
gero tempestade bat mendebal-aizian,
trezak bota ta altxatzen asi ziranian,
milagroz etzituben danak sartu urpian.

4. Trezak bertan utzita etxera abiyan,
jira-bita eginik guztiak iya-iyan;.
gero pasa zitzaien bidian erdiyan:
zumaiar txalupa bat zegon desgraziyan,
bai sokorritu ere alegin guziyan.

---

[91] Antonio Zavala, aip. lib., 1978, 87-96.

5. Ogei lagun zituben tripulaziyuan
zumaiar txalupa orrek galduta itxasuan;
Agustin Andonegi bere aziyuan,
naiz bera ibilirik iya-iya galduan,
zazpi artu zituben al zuben moduan.

6. Agustin Andonegik eman ditu pruebak,
bere mutilak nola ez diran motelak;
onrak ere irabazi ditu asko berak;
zerbait lagundu izan baziyon denborak,
etziraden itoko amairu gizonak.

7. Inola arrimatu ezinda salbatu,
alako egualdiya zitzaioten sartu.
Danak ojuka: «Arren, jaunak, gu're artu!»
Aien antziz biyotzak ziraden urratu,
bainan inola ere ezin anparatu

8. Berak iya galduta gizonak salbatzen,
pensa zazute oiek balorerik duten;
beste geiago ere artu nai zituzten,
bainan itxas gaiztuak etzioten uzten,
ondo penaz an utzi zituzten itotzen.

9. Ai, arrantzaliaren bizi penosua!
Ofiziyu ori ez da inbidiosua,
oien irabaziya ain da kostosua;
gure Jaungoiko maite amoriosua,
arren, bedeinka zazu berriz itxasua.

10. Agustin Andonegi, zure baloreak
munduari eman dizka probalidadeak;
merezi dituzute ondo onoreak,
zu ta zure txalupen zeguen jendeak,
zergatikan zeraden umano nobleak.

11. Oien biziya beti, dudarik ez dago,
naiz osasuna izan arriskuan dago;

egon arren denbora kalman eta klaro,
derrepentian txarra sartutzen bazaio,
galtzen dira egin arren makina bat saio.

12. Jaunari biaiogu barrendik eskatu,
geiago orlakorik ez dedin gertatu;
bainan biyotz-biyotzez ondo errezatu,
itxasora juatian danak alkar artu,
lagun faltan ez gaitzan guztiyok tragatu.

XIII

SAN JOSEREN HONDORATZEA[92]
1901-II-3

1. Kosme Damian Txurrukakoan erritar doakabeak,
kristau fedetsu, kristau beartsu, bearran adiskideak,
euskera beste izkuntzik maite etzuten arrantzaleak,
itxaso-gizon trebeak, Kanta-uriko loreak
ur gaziyakin beti burrukan ibiltzen ziran jendeak,
arraiak dira ogei eta bat euskaldun aien jabeak.

2. Gogoratuko dira Bermeo, Antxobe eta Algorta...
larunbat santuz zutelakuan izandu negar galanta;
iruretatik galdu ziraden larogei eta amaika,
zenbat seme, zenbat aita, Jaungoiko maiteak naita...
itxaso baztar euskerazkotik diraden munduban palta!
Motrikotarrak ere ederra zuten aurreko lanbata!

3. **San Jose** deitzen ziyen txalupan Motrikutar fedetsubak,
larunbatean ogei ta batak izandu ziran galdubak;
denak uretan eman zizkiyen Jaunari beren kontubak,
arrantzale koitadubak, euskal-zale onradubak,

[92] Antonio Zavala, *Ramos Azkarate. Galtzaundi berriz ere.* (I, II), Auspoa 286,287. Zarautz 2004, T.II, 346.

utzirik beren familitxuak emen desanparatubak,
ditu eraman berarengana Jaungoiko santu-santubak.

4. Zenbat alargun, zenbat ume ote daude gaur negarrez,
putzu aundiyak egiteraino samintasunan indarrez?
Ama gaixuai ume gaixuak esango diye: «Aitik ez!».
Amak orduban oinazez, jantzi ondoren soin beltzez
diye esango: «Gu bete arren naigabez eta ekaitzez,
kantauritarrak lagun egingo digute guri biyotzez».

XIV

Nª SRA DE ICIAR-KOAREN HONDORATZEA[93] (1902)

1. Amar marinal ito dirade Kantabriako uretan.
Negar garraxiz beteta daga Ondarru bere etxetan,
Emeretzitik amar ittoak, bederatzi salbatuak
Goiko Jaun ona! zer dira baina zure desio eskutuak?

2. Mutriku ortan ba zan dei larri eta gizonen ez bihar,
olatuetan trabes zanian Nuestra Señora de Itziar.
Erri guztia begira zeruan argi gabeko iluntzian,
potinandia tira-biratan igarri zuen trantzian.

3. Isidoro zan patroi abila, lagunentzako noblia,
itsasoetan asko ibilia ta gizon onaren ondria.
Parte faltsuik euki ezarren izan du azken tristia.
Alegin sendo eginagaitik betiko galdu lemia.

4. Amar gizon batera ito ata ainbesteik ez bizik artu.
Salbatu ziran bederatzik e larri ziraden azaldu.
Promesa eta ofrezimendu, erruki eta errezu,
olakoetan gertatzen danez danak ziraden an keixu.

---

[93] Agustin Zubikarai, *Ondarru, kantu, otoi, orru*. Caja Municipal de Cultura, Ondarru, 184, 36.

5. Bada negarra Ondarru ontan, tristura eta tutua!
Alargun eta umezurtzetan inkesa eta ulua.
Kanpotik bialduarren errukarrien dirua.
diruz sekula ez da onduko bear genduken tratua.

6. Anai bezela jokatua da Mutriku guri laguntzen.
Alkar arteko aixa txikiak ez dira orain kontutzen.
Jarrai dezagun danon artean gure zereinak ondutzen,
itsasoaren tentaziuak sekula ez dira ta aztutzen.

XV

ERANDIOKO DESGRAZIA[94] (1906-II-26)

1. Mila eta bederatzireun au da seigarren urtian,
desgrazia bat pasatu dana Erandioko partian;
negarra franko eragin dute familiaren artian,
zenbat disgustu izango zuten pensatzen jarri gaitian.

2. Otsailaren ogei ta seia egun gogoragarria,
tristuriaren lutoz jantzi zan Erandioko erria;
euren gorputza uren azpian ainbestek zuen utzia,
zeruko Aita, eduki bedi arren miserikordia

3. Orretarako ziran egunak, juan ziran erromerira,
dibersiyua zeuan lekura, Barakaldoko errira;
arratsaldia an pasatuta iluntzian erretira,
bote batian amasei lagun, danok ziraren azpira.

4. Desgraziaren bila zetozen guztiok atrebituak,
ontzi txikian ainbeste lagun, nai zutenak serbituak;
karga aundiak errebentatu, ezin geio sufrituak,
zetozen amasei ortatikan beratzi dira ituak.

---

[94] Antonio Zavala, aip. Lib., 1978, 141-149.

5. Ondo pensatzen jarri ezkero, da gauza negargarria,
familiya askorentzako egun artan etorria;
euren umiak ain estimatu an utzi biar bizia,
arrezkerotik dago lutuaz Erandioko erria.

6. Zori gaiztoko egun txarrian orduan gertatu ziraden,
euren biziyak entregatutzen asko pensatu ez arren;
inork eztaki eriotzia nundikan nola datorren,
ta gutxiago ondorendikan zer justizia dakarren.

7. Mundu ontatik oietxek dira uste gabe juandakuak,
bere eskuan artu daitzala arren gure Jaungoikuak;
dibersiuaren bila juan da biziya emandakuak,
orlakuari esan leikiyo martiri benetakuak.

8. Onezkero ezta erremeiorik arek mundutik juan zian,
etzeite lagun geio gertatu orlako eriotzian;
itxasuarekin peliatuta azkenian ere il zian,
negarra franko eragin dute bakoitzak bere etxian.

9. Bizi geranak mundu onetan kontuan egon gaitezen,
al dan guztian begiratuaz nundikan nora gabiltzen,
jaungoikoari erregutuaz, inundik al baliteke izen,
desgrazia artan gertatu diranak zeruan gerta deitezen.

10. Erregututzen zaitugu ondo, zeruko Ama Birjina,
santa guztiyen agintariya, aingeruen erregina:
konsideratu martiriotik euken apartan ezina,
aien anima salbatzeko egin zazu alegina.

11. Kristau oiek gertatu ziran estadu negargarrian,
euren bizia eman biarra itxasuaren erdian;
Jesus maitiak sartu daitzala zeruetako glorian,
antxe gozatzen egon deitezen eternidade guzian.

12. Tentaziyua ibilitzen da okasiyuaren bila,
pekatuetan dauan anima arkitutzen da debila;
Jaungoikoaren seme guztiyak izan biar du umila,
beste gauzarik eztet desiyo: ala gertatu dedila.

XVI

1908-V-24KO DESKALABRUAK[95]

1. Mila pasata bederatzi eun zortzigarrengo urtia,
bertso batzuek asmatutzeko euki det borondatia,
ikusirikan udara txarra batzuentzako egitia,
desgrazikua izandu dala Santanderako partida,
atunetako gizon gaixuak iruki zuten kaltia.

2. Nekazariya legorrian da arraizalia itxasuan,
jan biarrakin egiten dute mundu ontako plazuan;
artzen diraden pena ta susto beti gogotan jasuan,
al balitz danak ipinitzia alkarren gainka pisuan,
zer kontatua gertatu're bai bakoitzai bere auzuan.

3. Urte guzitan juaten dirade montañesako kostera,
San Juan eguna inguru ortan, udara pasatutzera,
bere familiyak mantentzeko dirua irabaztera,
negargarriya batzuentzako beren buruak uztera,
libratu dana larri ibili berriz legorra ikustera.

4. Ondarruako gizonak asko, Mutriku eta Donostiya,
bermeotarrak zer esanik ez, dana txalupaz josiya;
itxas kanpuan gertaturikan; denbora txar itxusiya,
ainbeste enbarkaziyo triste galdu biarra etsiya,
batzuek nolabait libratuta bestiak galdu biziya.

5. Beren andre ta arrebak igual pariente guzi negarrez,
gauza oiek orla gertatu eta lasai egoten ezta errez;
deskalabruak pasatzen dira uretan eta legorrez,
baleki batek zer gauza txarrak etorri biar dun aurrez,
aiko ginake bata bestiari zar eta gazte agurrez.

6. Ainbeste txalupa eta bapore beren santu-izenakin,
batzuek buelta oso emanda bestiak urez betiakin,

---

[95] Antonio Zavala, aip. lib., 1978, 151-157.

naiz urrutira klaru ikusi probetxurik ez mendiakin;
ama batzuek gelditu ziran bost eta sei aur txikikin,
sokorritzeko saiatu ziran teatro eta festakin

7. Modu orretan izandu ziran suskriziyuak irikitzen,
estudiantinak kalietan da aientzako diru biltzen;
Bilbaon ere partidua ta nobillada da jokatzen,
Donostiako soziedadiak igual ziraden portatzen,
saiatu ziran famili aiek al dan ondona anparatzen.

8. Irakurrita jakindu gendun periodiko edo papera,
lutua zala pertsona askontzat kosta Kantabri aldera,
txalupa asko eta bapore galdu zirala batera;
zein ote ziran jendia larri, arrazoia nai atera,
makinat pena zabaldutzeko izan da aurtengo kostera.

9. Dudarik ezta egitia bat gauza abekin penatu,
len bizi ezin dan pobriari zer eiten zaion ailatu:
zorioneko itxaso aundi, eiten dezuna tragatu;
bagina danak legorrerako lanikan ezin bilatu,
modu orretan uretan dira gizon asko're saiatu.

10. Aita bat orla faltatutzian aurrak dira akordatzen,
mantaletikan amai elduta noiz etorriko galdetzen;
erantzun nai ta soltatu ezin, negarrez dago urtutzen,
auzuetako emakumiak al dan ondona laguntzen,
gauza au bainon tristiagorik ez det ezer e bilatzen.

11. Batzuek orla aitzen dirade arraizaliai bengatzen,
zer peligro ta arriskua duten eztute konsideratzen;
lurren gainian dagon sastria segurua da bizitzen,
denboraletik txarrenakinde aitzen da lasai kantatzen,
itxas kanpuan txalupak buelta, gizonak antxen itotzen,

12. Alde batera pentsatu eta ori da artitzekua:
itxaso onak gusto ematen, txarra da bildurtzekua;
legorretikan muralla- iskinan jendia jostatzekua,
itxas kanpuan denbora txarrak inoi ez barkatzekua,
persona askokin igual galdutzen naiz aundia izan barkua.

13. Amairugarren bertsu onekin orain egiten det bukatu,
Zipriano det izena eta Lertxundi det eskribitu;
galdu ziraden gizon guziyai eginikan erregutu,
zeruko Aita Eternuari nai diot ondo kunplitu,
nai duenian guri otsegi bere eskutikan gaitu,
agur danari, arraizaliak, suerte on batez segitu

XVII

KANTABRIAKO ITXASGIZONAI OROIPEN BAT[96] (G. 1912-VIII-13 / T. 1932)

1. Nere biyotz gaixtua eskaka aritzat,
bertso bi ipintzeko, baldin baderitzat,
Abustuben amabiyan sortu zan ekaitzak
egin dizkigu oso deskalakru gaitzak,
makina bat persona ondatu beintzat.

2. Denak esplikatzera orain naiz abiyan,
motibua dan gisan mintzatu nadiyan;
mila bedetzireun eta amabiyan,
gainera Abustuko, ilarez erdiyan,
desgraziy'au pasa da Kosta Kantabriyan.

3. Kulpa gabeko franko badu eramana,
bakoitzak errezatu «Aita gure» bana,
ain da negargarriya egin digun lana,
anparo gabe utzi ainbeste aur ta ama,
sinisten ere gaitz da aurten pasa dana.

4. Abustuko ilaren amairu garrena,
guretzat argitu dan egun txarrena,
izantzagun kupira denak alkarrena,

[96] *Bertsolaria* 1932, 50 zkia, 303.

gogoratu utzarekin lertzen zait barrena,
au da paraderua kantabritarrena!

5. Eun da amaseikua Bermeo bakarra,
aurten ez dute izan suerte ederra,
orri txiki batentzat, ai ori negarra!
aurrak aita falta du ta amak, senarra!
badaukate anparo on baten bearra.

6. Itxasua zitzaigun aserretzen asi,
bendabal aldetik zan aizia nagusi,
nor bere puestuari ezin ziyon eutzi;
danak zatitu ditu inor ez du utzi
Gipuzkuan bertatik ez da falta gutxi.

7. Eun da berrogoi ta iru omen dira danak
arrantzalietatik ondatu diranak,
gure Jangoikuari kontu ba emanak;
guk egin bear degu bizirik geranak
ayetzat erregutu biyotza dubenak.

8. «Aita San Inaziyo» belako barkuba
amairu gizonekin ur pian sartuba,
beraren imajina an zuben sortuba,
Abanako partian dago kostatuba,
tenpestade gaixtuak jo ta puskatuba.

9. Egur biren gainian gizon bat jarriya,
ai zer ote zan aren orduko larriya!
lagunak bera jun ta estadu urriya,
ez da Donostiyara errex etorriya,
ikusi du birian istilu gorriya.

10. Seinale ibili dala arraixku aundiyetan,
arrai txarra besterik ez dan tokiyetan,
ilaren amabostan goizeko seietan,
baporiak artu zun borondate onetan,
naikua sufritu du paraje oietan.

11. Izena Daniel du nonbria Eskurtza,
jeniyo bizikua, espiritu utza,
ta baliatu zaion Jaunaren laguntza;
oso maltratatuba sartu zan onuntza,
berriz egon liteke juan gabe aruntza.

12. Inork galdetzen badu gauz ori nola da,
nik erantzungo diyot: Egiyaz onla da,
inor dudan badago betor eskolara,
anunziyatu zuben orlako bolara,
graziyaz mila bider aita Orkolaga.

13. Ai, gure biyotzeko aita Orkolaga,
beraren eskutikan ez gaitzala laga,
orain bezela zaitu eguna ta gaba,
berriz itxasu ortan ez gaitezen traba,
bedorren talentuba gauza biarra da.

14. Jainkua portatzen da danentzat ondradu,
gaiztuarentzat igual, ain biyotz ona du,
emanaz irabazten degun ainbat gradu,
itxaso sagradua ur guziyen buru,
ark ere gurutzia errespetatu du.

15. Jesus maitiak eman dezala argiya,
oraingo bolara ontan badago premiya,
euskaldunen artian au da pikardiya,
Bermeotik galdu da jendien erdiya,
lutoz jantziya dago Kosta Kantabriya.

16. Ango itxas kolpiak ta urre borroiak,
tragatu nai zituen mendi ta erriyak,
pasa dira desgrazi ikaragarriyak;
orra amasei bertso oraingo berriyak,
Fermin Imazek eta Txirritak jarriyak.

Kantabria-ko itxas-gizonai oroipen bat

FERMIN IMAZEK ETA TXIRRITAK JARRIYAK

1

Nere biyotz gaixua
eskaka aritzat
bertso bi ipintzeko
baldin badoritzat,
Abustuben amabiyan
sortu zan ekaitzak
egin dizkigu oso
deskalakru gaitzak,
makiñabat persona
ondatu beintzat.

2

Ponak esplikatzera
orain naiz abiyan
motibua dan gisan
mintzatu nadiyan;
milla bedetzireun
eta amabiyan,
gañera Abustuko
illarez erdiyan,
desgraziy'au pasa da
Kosta Kantabriyan.

3

Kulpa gabeko franko
badu eramana,
bakoitzak errezatu
«Aita gure» bana,
ain da negargarriya
egin digun lana,
anparo gabe utzi
ainbeste aur ta ama,
sinisten ere gaitz da
aurten pasa dana.

4

Abustuko illaren
amairu garrena
guretzat argitu dan
egun txarrena,
izantzagun kupira
denak alkarrena,
gogoratu utzarekin
lertzen zait barrena,
¡au da paraderua
kantabritarrena.

5

Eun da amaseikua
Bermeo bakarra,
aurten ez dute izan
suerte oderra,
erri txiki batentzat
¡ai ori negarra,
aurrak aita falta du
ta amak senarra!,
badaukate anparo
on baten bearra.

6

Itxasua zitzaigun
aserretzen asi,
bendabal aldetik zan
aizia nagusi,
nor bere puestuari
ezin ziyon eutzi;
danak zatitu ditu
iñor ez du utzi
Gipuzkuan bertatik
ez da falta gutxi.

7

Eun da kerrogei ta iru
omendira dañak
arrantzalietatik
ondatu diranak
gure Jangoikuari
kontuba emanak;
guk egin bear degu
bizirik geranak
ayetzat erregutu
biyotza dubenak.

8

«Aita San Inaziyo»
belako barkuba
amairu gizonekin
ur pian sartuba,
beraren imajiña
an zuben sortuba,
Abana-ko partian
dago kostatuba,
tenpestade gaixtuak
jo ta puskatuba.

9

Egur biren gañian
gizon bat jarriya,
¡ai zer otezan aren
orduko larriya!
lagunak bera jun ta
estadu urriya,
ez da Donostiyara
errex etorriya,
ikusi du birian
istillu gorriya.

(Bukatzen da 306 urrikuan)

XVIII

BERTSO BERRIYAK LUSITANIAKO DESKALABRUEN GAINIAN JARRIYAK[97] (1915-V-7)

1. Eskatzen det isil piska bat danori gaur faborez,
Esplikatu nai det ba gauza bat negarrez,
Nuevayorko moilatik erten zoan Lusitaniak
Beterik kargaz ta jentez Liverpoolko aldea.

2. Maiatzaren zazpiyan eman ziyuen erteria,
Despeditzen zan jente guziya, pozez eta alegriyaz,
Beren arrosko mobimentuan bazijuan ongi Lusitania,
Erabakitzen oso polliki olato aundi txuriyak.

3. Gizonak andrak ta umiak denetik despeditzen zian,
Altxatzen pañuelo txuriyak oso pozez beterikan,
Bat olgetan bestia dantzan, umiak denak salteka,
Beste batzuek urai beiratzen denak pozez beterikan.

---

[97] KM. Kulturunea, Gregorio Mujikaren ondareko bertso-papera. C-553 F-22.

4. Izango ziran zortzi bat ordu zijuala itsas gainian,
Txori txuriyak eskoltatzen zun bere lau eskinan aldean,
Eta kapitan balientia zeon bere zubi gainian,
Bere biyotzak esaten ziola desgrazien bat zala urrian.

5. Baporen pasillo baten jarrita sillatxo batean
Itxaso pollitari begira zeon gazte euskaldun bat,
Arratsaldeko ordu biyetan maiatzaren zazpiyan,
Ikusi zuan torpedo bat iya bapore azpiyan.

6. Mendi txuri urrezkuak laister ikusi zuan,
Altxatzen ziela aundi baporen inguruan,
Zauzkan kamarotiak euskaldun orrek inguruan,
Artu zuan salvavida bat salbatzeko peligruan.

7. Segituan juan zan esatera barkoko kapitainari,
Atzeko aldean ikusten zala ur gainian sumarinua,
Kapitanak segituan ordenatu zuan marinelari
Arriatzeko ur gainera txalopatxuak ugari.

8. Bapor artan ezta sentitzen, lamentuak besterik,
Doloriak eta negarrak gizon ta andra guziari,
Maldiziyuak ta juramentuak batzuek diarka amari,
Beste batzuek pazientziyaz errezatzen Jangoikuari.

9. Batzuek oinetakuek erazten, bestiak eltzen tabloari,
Onek aitari deika, arek deika semeari,
Emakumeak negarrez laztan bat eman senarrari,
Onek albaluke bezela salbatu estutasun artatik.

10. Bazijuan ondoa bapor eder aura,
Sokak ebakitzen asi zan euskaldun aura,
Beiratu gabe bere biziai asi san salbatzen
Ta onela txalupatxo batean ogeta amabi salbatu zituen.

11. Lan ontan zebala ikusi zuan religioso bat
Beren besuarekin eskatzen zeola faborez sokorro bat,
Gure mutila errukituta beren txalopan etzala salbatzen.
Beren salvavida bota zion eta salbatu zan ari eltzen.

12. Aita religioso au da oso fraile ona,
Ta ematen dio eskerrak Bilboko mutil onari,
Ez dauka historiyan igualik jarri zuan bere biziya peligruan,
Besteak salbatzeagatikan olako triste peligruan.

13. Bizente Egaña ta Agirre da mutil baliente au[98],
Olabeagan jaiota Abandon bataiatua,
Mejikoa juan zan oso gaztia ta orain zetorren etxera,
Momentu negarrezko artan gloriaz asko bete da.

14. Goiko Amerika aldetik zetorren fraile ona,
Urte askotan predikatzen ibili da religioso ona,
Bapor ontan zetorren alegriaz oso beterik,
Desiotan laztan egiteko bere aita ta amari.

15. Peligro artan zeola ikusi zuan ama bati
Iru ume besoan zeuzkala dolorez ta negarrez beterik,
Amari eman zion beren kortxua pozez beterik,
Erregutzen Jangoiko jaunari ama semeak salbatzeagatik.

16. Bere balore aundi arekin ekin zion jentia salbatzen,
Lenengo salbatu zuan ama alabak tabloi baten,
Gero juan zan itxas gainian jentia geiago salbatzen,
Ta onela balorez beterik bizitza asko salbatu zituen.

17. Zeon balorezko lan ontan Españiako relijioso on au,
Ikusten zeola bere onduan desgrasi aundi au,
Bera ere zebilen gaizki tabloi ta uren artean,
Arrimaturik berari Agirre biziya salbatu ziyuan.

18. Galdu zanian bapora itxas txuri azpiyan,
Ikusten zian gauza tristiak gizon andra ume artian,
Olato artian danak nastuta aiek momentu tristiyak,
Danak itotzen dao ezin salbaturik inoren indarrak.

---

[98] Bizente Egaña Agirre 1886ko ekainaren 7an jaio zen Bilbon, bere gurasoak Leandro Egaña Uriarte eta Baldomera Agire Arzinaga izan zirelarik. Gertatu zenean hondoratzen 28 urte zituen, beraz, sasoirik onenean.

19. Negarrez zeon ur gainian ordu bat eta erdian,
Ama bat seme birekin tabloi baten gainian,
Sei bat metro zeuden aldegin da Agirreri,
Beren gerrikua bota zion salbatzeko ama ta umiari.

20. Mundu onetan ez dago pena aundiagorik,
Ikustia baino jentia itotzen ta ezin salbaturik,
Danak eskatzen piedadia beren momentu triste hartan,
Ta bestiak begira ezin salbaturikan.

21. **Bizente Egaña ta Agirre** euskaldun kasta ona da,
Beren odola dago nastuta balorez ta graziaz.
Gaur Inglaterra guziyan jentiak estimatzen du,
Baina espainol tarrak esan gutxi egin du.

22. Gauza asko ipintzen debe beste jende onegatik,
Belmonte, Gallo o Gaona o beste Gallitogatik,
Baina ona da esatea jende guziari
Ez daola balore aundiyagorik
Ematia baino bi pase ederrak itxaso olato txuriari.

XIX

DOMECQ MARINELAREN HILTZIA[99]
(1938 ing.)

1. Ez da marineletan ez ja Donibandarrik
Amodiorik ez dianik itxaso handiari,
Txipitik maithatüz hori ez da estonagarri
Nahiz hen zorthia ez den bethi inberagarri,
Aitak erakutsirik bidia semiari,
Bizi dira eskualdün hun, fidel itxasuari.

[99] Jakes Larrondo (ed.), *Etxahun-Iruri khantan*. Pau, IPA, 1977, 94-96.

2. Jinkuak egin bagüntü algarren maithatzeko,
Ez zatin kriminelik jente hunen arteko,
Eziz eta marinel bat planta hortan hiltzeko,
Alhargüntsa gazte baten nigarretan uzteko,
Bi urthetako haur bat goizik malürratzeko,
Aita eta anaie bat krimuan probatzeko.

3. Itxas portin hartürik arrantzüko untzia,
Gaiaz phartitü ziren hiru aita semiak,
Zioielarik gaur date arrantzüko eguna,
Fortünatzeko beitügü güne izigarria,
Xantzak lagüntzen badü gure projet hartia,
Zuinen eder datin sarri etxenko batzarria.

4. Itxasua anple zen, ez zen batere aizerik,
Handaiako leihorra hürrünian ageri,
Guratzan hat ez beitate beste arrantzalerik,
Untzian barnen hiruak dritxokaz eta erriz,
Itxasuak ederrez ez zialakoz parerik.
Nihur ez zian gai hartan esperantxa trixterik.

5. Hel eta hasi ziren beren ofiziuari,
Sariak hedatürik arrain bühürriari,
Gorderik hiru marinel beste aldekuetarik
Tirokan hasten dirade xüxenka untziari,
Seme batek eskü bat bihotzian ezarri,
Oihü batez: «Hunkirik niz» diolarik aitari.

6. Tiro batek eginik baten heriotzia,
Donibanerat bürüz ützültzen da untzia,
Hain alagera juranik planta hortan jitia,
Phentsa zer izan behar zin etxeko batzarria,
Hogei eta bi urthetan holaxek finitzia,
Ez deia hori oithian phena izigarria.

7. Ama baten besuan haur txipi bat nigarrez,
Bere aita zenaren besarkatü beharrez,

O inozent malerusa badakikek hatsarrez,
Bethi izan behar dela lotsa itxasuarez,
Handitü hizatinin ohart hadi aitarez,
eta ez itxasua har irus izan beharrez.

8. Hürrüntik ezagün da orruaz itxasua,
Phausa hadi bakian, o marinel gaixua,
Bere traidore obretan ez dik lehen krimua,
Behar dik nunbait egotxi bere errai gaxtua,
Hitarik nahi zian azken sakrifiziua,
Kriminelen eskietarik inozent hiltzekua.

Pierre Bordazarre «Etxahun Iruri» (1908-1979)

XX

ALARGUNAREN NEGARRA[100]

1. Nere gogoa egan dijoa alargunaren albora,
Aitarik gabe gelditu diran ume txikien ondora,
Ama gaixoa, zoro antzean begira izar lekura:
– Nere umien aita genuna iges jun zaigu zerura.

2. – Iru alaba ta bi mutiko dira gu bion aurtxoak,
Aitarik gabe gelditu dira errukarrizko gaixoak,
Ni ama izan da, ez dut etsiko ni-re iltzera nijoa,
Aita-amik gabe, zer egoera ume zurtz gure umeak!

3. – Nere buruak ez du zentzurik zu itto zinan ezkero,
Zure itzala bilaka nabil goiz guziz eta gauero,
Aitatxo nun da? Galdezka dabil txikiena egunero,
Nik etorriko zerala esan etzera etorko gaurgero.

4. – Patroiak oiu egin zunean (Pello, Antton, Joxe!) ura loaren goxua,
Azkar esnatuz pizkor altxatu zinan nere senartxua,
Nork esango zun izanikan zu bulartsu ta osasuntsua,
Azkenekoa izango zala erdi lotako muxua.

5. – Neretzat zinan senar onena, ez ninduzun atzipetu,
Gazte ginala agintakoak danak zenitun kunplitu,
Zure mendean egun onarik munduan ditut bizitu,
Orla ez neza etsi-inola ta lenbaitlen zugana deitu.

6. – Zure emaztea naizen aldetik dizut zin-zinez eskatzen,
Zauden lekuan saiatu zaitez gauza au neri irixten,
Len baino lena ni lur ontatik zuregana eramaten,
Zu gabe nere biziak ez du irauterikan pentsatzen.

---

[100] Fernando Artola Sagarzazu «Bordari», *Bakoitzak berea*. Sendoa, Zarautz, 1982, 112-113.